



GIPUZKOAKO
AGIRITEGI
OROKORRA
ARCHIVO
GENERAL DE
GIPUZKOA

AGIRITEGI ZERBITZUA
SERVICIO DE ARCHIVOS

Gipuzkoako leinuen aztarna bila (XV-XIX)



F. Borja de Aguinagalde

Elkarlanak / Encuentros 1



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo

Azaleko argazkia:

JUAN SANCHEZ DE ARAMBURUREN AITONSEMEARI BURUZKO
GRANADAKO ERREGE KANTZELARITZAREN ERREGE GUTUN EXEKUTORIOA.
1536 (GAO. BATZARRE ETA DIPUTAZIOAK)

Argitalpena:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA

© GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Azaleko diseinua:

LOPEZ & BILBAO. GRUPO DE DISEÑO

Euskarazko itzulpena:

BITEZ

I.S.B.N.: 84-7907-127-3

Lege Gordailua: S.S. 473/94

Fotokonposaketa eta inprimaketa:

ITXAROPENA, S.A. ARABA KALEA, 45 - ZARAUTZ

F. BORJA DE AGUINAGALDE

Ondare Dokumentalaren Arduraduna
(Eusko Jaurlaritza)

GIPUZKOAKO LEINUEN
AZTARNA BILA (XV - XIX)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo

Gipuzkoako Foru Aldundiko Agiritegi Zerbitzuak azken urte hauetan, sendotu eta Gipuzkoako errealitateari egokitzeko, prozesu garrantzitsua bizi izan du. Prozesu horrek hasiera nabarmena Gipuzkoako Agiritegi Orokorra hobetu eta berrabiltzeko egindako lanen ondoren izan zuen eta ideia nagusi han du ardatz: informazioa hedatzea Agiritegi Zerbitzuaren helburu nagusi egitea. Helburu hori lortzeko eta erakarri nahi den publikoaren arabera, ekintza batzuk burutu ditugu eta iada, horien ondorioak ikusten hasiak gara. Horregatik guztiagatik, uste dugu iritsi dela Agiritegi Zerbitzuak bere argitalpen zerbitzua izateko garaia, agiritegietak langileen zein agiritegietara etortzen diren ikertzaileen lan tekniko, zientifiko eta dibulgaziozkoak argitaratzekoa.

Ekintzak hedatzeko lau bilduma diseinatu ditugu: «Elkarlanak-Encuentros», «Ikerlanak-Estudios», «Inventarioak-Inventarios» eta «Iturriak-Fuentes». «Elkarlanak-Encuentros» lehenengo bildumaren bidez, agiritegia bitartekari delarik, ikertzaile eta publikoaren arteko esperientziak elkartrukatzeke egingo diren ekintzak hedatu nahi ditugu: ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta abar. «Ikerlanak-Estudios» bildumak Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak eman nahi ditu ezagutzera, gure Lurrealde Historikoko eta kanpoko agiri ondareak oinarri dituztenak. «Inventarioak-Inventarios» bildumaren bidez, bitarteko deskriptiboak hedatu nahi ditugu, bai Diputazioko agiritegietakok bai interes orokorra duten beste agiritegietakok. Azkenik, «Iturri-Fuentes» bildumaren bidez erraztu egin nahi dugu agiri mota batzuetarako bidea, iturrien argitalpen zorrotzak eginez. Ez dira argitalpenak lau bilduma horietara mugatuko, aurrerantzean, ekintza berrien ondorengo lanak ere argitaratuko baititugu.

Filosofia horrekin ematen diogu hasiera lanak argitaratzeko proiektuari, ikertzaile eta herritarren eskaerari erantzun eta oro har publikoari beste era bateko aisialdia eta kultura zabalagoa izateko aukera emateko.

M^a JESUS ARANBURU ORBEGOZO
Kultura eta Turismoko Foru Diputatua

Azken urteetan asko aldatu da agiritegietara ikertzeren den jende mota. Gure agiritegiak, lehen jende mota jakin batentzat bakarrik irekiak, gaurregun topagune, ikerketak egiteko toki, kulturune, heziketa eta aisialdirako leku bihurtu dira. Informazioa hedatzeko bide berri honek ahalegin haundia eskatzen du egitarau berriak egiterakoan eta baita agiritegien egitarau klasikoak egokitzerakoan ere.

Kultura eta Turismo Departamentuak, Agiritegi Zerbitzuaren bidez, hurbildu egin nahi die herritar guztiei hain ezaguna ez den gure agiri ondarea. Hurbiltze prozesu hori agiritegien izaeragatik liburutegi eta museoetako baina zailagoa izanik, zailtasuna gainditzeko proposamenak agiritegi zerbitzuak berak egin behar ditu, informazioa hedatzeko ekintzen planifikazio egoki baten bidez. Ekintza hauen artean garrantzitsuenetakoa da prestakuntza ikastaroak antolatzea, ikertzaileei ikerlanak hasteko behar dituzten bitarteko teknikoak eskainiz.

Aurkezten dizuegun liburua «Gipuzkoan familiak berreraikitze gida (XV-XIX)», «Ikerlanak-Encuentros» bildumako lehenengo alea, Gipuzkoako Agiritegi Orokorrek genealogia eta heraldikaren gainean antolatutako lehenengo ikastaroan erabilitako eduki eta materialen bilketa da. Egileak, F. Borja de Aguinagaldek, gai horren inguruko teknizismoetara ederki moldatzen den hizkera erabiliz, irakurlearen eskueran jartzten ditu ikerketa genealogikoa egiterakoan izugarri erabilgarriak izango zaizkion oinarritzko ezagutzak. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu F. Borja de Aguinagalderei liburua prestatzeko egin duen sintesi lana haundia izan delako eta ziur gara interesa sortuko duela gure agiritegira zein beste agiritegietara lanera etortzen direnen artean.

GARBIÑE EGIBAR ARTOLA

Kultura eta Turismoko
Zuzendari Nagusia

AURKIBIDEA

Orr

SARRERA

Faustino Menéndez Pidal de Navascués 11

AURKEZPENA 15

1. ZENBAIT AURRE-AZALPEN 17

1.1 GENEALOGIA, FAMILIA ETA GIZARTEA.

XV MENDETIK XIX.ERA 17

1.2 AGIRITEGI-FONDOA, INFORMAZIO ETA IKERKUNTZA

GENEALOGIKORAKO ITURRIA21

1.3 BIBLIOGRAFIA GENEALOGIKOA22

2. AGIRITEGIKO AGIRIEN LOGIKA.....27

2.1 AGIRITEGI-ITURRI MOTAK27

2.2 AGIRI-ITURRIAREN ETA IKERKETA MOTAREN

HAUTAPENA31

3. AGIRITEGI-FONDOAK ETA BILAKETARAKO

ESTRATEGIAK33

3.1 EGOERA ZIBILARI BURUZKO AGIRIAK.....36

3.2 Protokolo notarialak40

3.2.1 Protokoloak40

3.2.2 Eskritura notarialak44

a) doteak eta ezkontza-hitzarmenak.....47

b) testamentu, kodizilo, testamentu egiteko ahalmenak49

c) Maiorazko edo/eta Loturaren fundazioa50

3.3 FONDO JUDIZIALAK	56
3.3.1 Iturri judizialak.....	56
3.3.2 Gipuzkoako fondo judizialak	58
3.3.3 Prozesu judizialen egitura eta ahalmeneko informazioa	60
3.3.4 Kaparetasun-espedientea	64
3.4. BESTELAKO AGIRITEGI-FONDOAK	73
3.4.1 Udal-Agiritegiak	74
3.4.2 Eliz-Agiritegiak	75
3.4.3 Monarkiako Agiritegiak	76
a) hertsiki genealogikoak diren agiriak	76
b) bestelako agiriak	79
3.4.4 Famili- Agiritegiak	81
3.4.5 Eskuizkribu-bildumak	82

SARRERA

Agiritegi guztietan, Espainiakoetan zein beste herrialdeetako agiritegietan, ezaguna da, azken urteetan, ikerketa genealogikoak egiteko balio duten fondoek kontsulta izugarri hazi dela. Horrek batzuetan, funtzionamendu arazo larriak sortu izan ditu zentroetan, zenbaitetan, besterik gabe, eskaerak gehitu egin direlako, baina beste zenbaitetan, ikertzaile hasi berrien esperientzia ezak alferrikako lana eta etengabeko bilatze eta irakurtze lana eragiten dituelako. Arazoaren garrantziaren seinale da Agiritegi-tako Nazioarteko Kontseiluak gaia tratatu zuela eta, lehen aipatutako bigarren arrazoiaren eraginak arintzeko, ekintza batzuk proposatu zituela. Asmo horrekin egin du bere obra Borja de Aguinagaldek: gida zeharo praktikoa, esparru honetan, trebetasun haundiagoz eta lanari etekin haundiagoa atereaz, lan egin nahi duten ikertzaileei zuzendua. Gida probetxugarri izango zaie agiritegi-tako langileei ere.

Baditu egileak bi ezaugarri asmatu egin duela erakusten dutenak: agiritegi munduan izen haundiko profesionala eta ikerketa genealogikoetan langile sutsua izatea. Beraz, oso ondo daki non eta nola bilatu eta baita, esperientziaz, oztopoak zein diren ere. Borja de Aguinagaldek «tamaina txikiko lan haundia» lortu du. Nahiz eta Gipuzkoan eta Gipuzkoako familien gaineko ikerketa genealogikoak egiteko diseinatutako gida izan, erabilgarria izango da Espainiako beste zenbait lurraldetan lan egin behar dutenentzat ere. Ema-ten dituen gida eta aholku gehienak orokorrak dira edo, *mutatis mutandis*, egoera desberdinetara erraz molda daitezkeenak.

Iturri idatziak —*agiriak*, hitzaren zentzu mugatu eta arruntenean— dira nabarmen, ugariak eta horretxegatik emankorrak, tankera honetako lanak egiteko. Baina ikertzaileak ez ditu bestelako batzuk ahaztu behar. Itu-

rri figuratiboak eraikinetako armarriak, erretratuak, objektuak, zigiluak,... izan daitezke; iturri monumentalak ikertutako familiarenak izan ziren etxe, kapera, hilobiak,... dira. Jakina, iturri hauetan apenas aurkituko ditugu zeharo genealogiari dagozkion datuak, baina balio haundikoak izango dira familia-ren historia eta inguru soziala ezagutzeko.

Genealogista guztiek eransten dizkiete euren lanei datu biografiko eta prosopografikoak, gutxi gorabehera, jakinaren gainean eta zuzenean lortuak; askok *genealogia* kontzeptuaren beraren barnean sartzen dituzte. Eskema genealogiko puruen xede naturala —filiazio kateen eta loturena eduki— mamitsuagoen euskarri izatea baita, izena eta bizi izandako urteak baino zerbait gehiago jakiteko aukera ematen dutenen euskarri izatea, hain zuzen. Ikertzaileek multzo horren osotasunaz jabetu behar dute, eta osotasun hori *leinua* da. Kontzeptu hori ez da huts-hutsean biologikoa, funtsean espirituala izanik, ondare amankomun bat ere hartzen baitu barnean, euskarri materialak dituena, baina batez ere espirituala dena eta bide genealogikoen bidez transmititu eta komunikatzen dena. Gaur egun, leinuaren ideia azaldu dugun moduan ematen ez bada ere, senideek ez baitute mantentzeko borondaterik, aurreko mendeetan, berriz, oso bizirik zegoen. Hainbestekoa izan zen leinuaren indarra odol loturak gaindituz botere taldeak osatzera iritsi baitziren, Gipuzkoako Oñaz eta Ganboatarrak lekuko. Horien azken aztarna, gaur egun, deitura dugu, iada, gehiengoarentzat eraginik eta esanahirik gabeko iraganaren arrasto bat besterik ez dena. Gizakia izendatu eta bereizteko, Estatuak eta bankuek sistema alfa-nerikokoak erabiltzen dituzte, milaka urtetan zehar balio izan duen familiarekiko erreferentzia baztertuz.

Genealogista guztien afana izaten da aurretik atzera joatea filiazioetan, ahalik eta garairik zaharreneira iristeko. Baina alde aurretik onartu behar dute, badirela gainditu ezingo dituzten mugak. Fondoan ustegabeko hondatze ez gain, pertsonen buruzko aztarrenek, *agiri* mota guztietan, gizartean duten garrantziarekin zerikusi zuzena dute. Dena den, leinu guztiek dute, beste edozein giza erakundek bezala, eratzeko aldia, ondoren ospe garaia eta azkenik, oro har, gainbeheraldia etortzen da. Ez da ohikoa izaten, ospe garaian, leinu batek garai historiko baten mugez at irautea, ospe egoeran irauteak

zirkunstantzia batzuetara jartzea eskatzen baitu eta zirkunstantzia horiek aldatzen direnean zaila izaten baita, ezinezkoa ez bada, neurri berean garrantzia. Horixe da arrazoiak, gizartearen goi mailako giza taldeak garapen azkarreko une batzuetan, XIV. mendean esaterako, aldatzekoa. Horregatik, ondo mugatzen du Aguinagaldek azalpena XV-XIX. mendeen bitarteko garaira.

Horren aurreko muga etenaldi nabarmen bati dagokiona da, oso gutxitan gaindi daitekeena, XIV. mendeko dokumentuen transkripzioak edo oso gertaera zaharrak ahoz transmititzen dituzten lekukoen azalpenak aurkitzeko zoria izan ezik. Ikertzaileak ezagutu egin behar ditu denboran atzera egiteko oztopo diren arrazoi historikoak. XV. mendean hedatu zen erabat gizartean paperaren erabilpena eta ondorioz dokumentu idatziak asko ugaritu ziren, aurrerantzean ez baita garrantzi haundiko gauzetarako bakarrik erabiliko papera. Baina guztia ez da hori, aztertutako leinu gehienak ez baitira garai horretakoak, aurreagokoak baizik; beraz, bila gabiltzan arbasoek ez zuten inolako agiririk utziko.

Arazoaren aurrean, ohikoa izan zen garai eta herrialde askotan genealogia mitikoak asmatzea, aintzinako jatorri ditziratsuak, leinuaren hasiera garaietako jatorri ezezagun eta ilunen ordez. Eman egin behar zaie daukaten balio soziologikoa: askotan, gure mentalitateari jarraituz historia berreraiki baino gehiago irakurketa sinbolikoa egin behar zen, denontzako eredu zena, leinua errespetatu eta istimatzen erakusten zuena.

F. MENÉNDEZPIDAL DE NAVASCUÉS

AURKEZPENA

Jarraian datorren testuaren helburua, agiritegi-fondo desberdinetan lan eginez ahal den ikerketa genealogiko osatuena burutzeko informazio erabilgarri eta beharrezkoa lortzea ahalmenduko duten lanerako tresna eraginkor eta zehatzak jendearen eskueran jartzea da.

Horretarako aurretik zenbait azalpen egin beharra dago.

Ikerkuntza genealogikoaren zale den agiritegi-tako profesionalaren ikuspegitik idatzita dagoenez, zehaztasun zientifiko handiena erabiliz argitasun eta eraginkortasun pedagogikoa bateratzen saiatu gara. Hau dela eta testua kritikatik urrundu nahi izan da eta ondorioz batzuentzat sintetikoegia nahiz oinarrizkoa gerta daiteke.

Bestalde, gaia artxibariaren ikuspegitik aztertzen denez hasiera batean nahiko idorra edo konplexua gerta daiteke, asko erabiltzen den edo eskurgarria den zientziaren arlo bat ez den neurrian. Behin eta berriz, ikerketa mota arrazoitzen eta agiritegi-fondoaren zerrenda egite hutsetik aldentzen saiatu gara.

Testua jakingura duen irakurleak pentsatuz idatzi da beti ere, gai honetan berria izanik ere interesatuta eta behar bada liluratuta dagoen ikertzailean pentsatuz alegia (1). Normala den bezala norbere sustraiak, hau da, norbere familiaren historia aztertuz hasi nahi duen ikertzailearentzat. Edo, izatekotan ere, beste pertsona batzuen...

(1)Orrialde hauetan gizartea edo familiaren historian buruzko informaziorik edo erreferentziarik aurkituko ez dela argitu nahi nuke espreski, aipatu ikerketa-gaiek tratamendu berezia eta idazle adituago bat eskatzen baitute.

Beste ikuspegi batetik ikusita, jadanik urte asko dira Agiritegi-Zerbitzuak «genealogista» deitzen diren mota honetako ikertzailez gainezka dardela. Hauen kopurua nahiz maiztasuna, zabalkundea eta kontsolidazioa kontuan izanik oso adierazgarria den erabiltzaile taldeaz, alegia. Honek guztiak ezustean harrapatu ditu Zerbitzu hauek eta, normala den bezala, lan metodo nahiz interesei dagokionez eta hauek aretoak betetzeak dituen abantaila nahiz eragozpenei dagokionez ezaugarri arras ezagunak dituen baina ezer gutxiago dakigun erabiltzaile honekin zer egin daitekeenari buruz bere arduradunek duten kezka gero eta handiagoa da. Ondorioz, askotan ez da erraza hauei lagundu edo beraien ikerketa errazagoa egitea.

Kasu batzuetan, nire irizpideen arabera, beranduegi ihardun da. Honen ardura ez da agiritegietako profesionalena bakarrik, baita erabiltzaileena ere. Bai batzuek eta bai besteek komunikabide egokiak sortzen ahalegindu behar zuten. Ondoren irakurriko duzuen testua bezalakoak hutsune hau betetzen saiatzen dira.

1. ZENBAIT AURRE-AZALPEN

1.1 GENEALOGIA, FAMILIA ETA GIZARTEA. XV. MENDETIK XIX.ERA

Tradizioz, genealogiari buruzko ikerkuntza nolabaiteko ñabardura «nobi-
liarioa»rekin garatu izan ohi da. Zorionez denbora asko da ospe gehieneko
historiografia serioenak ikerkuntza genealogikoa gizarte-historiaren oina-
rriko elementu gisa barneratzen duela (2). Eta oinarriko elementu izanik,
Antzinako Erregimenean zuzendari izan ziren estamentuen famili-historia-
ren ikerkuntza nahiz estamentu eta klase sozial eta familia guztien ikerkun-
tzek oso adierazgarriak diren ospea eta bizitasuna lortu dute.

Nahasteko beldurrik gabe esan daiteke XIV. mendetik XIX.era
genealogia gipuzkoarron tradizioen artean egon dela. *Leinu ezagunarekiko*
erreferentzia, bigarren eta hirugarren mailako lehengusuekin harreman natural
eta zehatzenak izatea ahalmenduko duen familiako oinetxetasun eta
ahaidetasunen kontrol zehatz eta xehekatuak, estamentu guztiak hartzen ditu.
Errexilgo baserritarrentzat, Azkoitiko «jauntxo»entzat edo Donostiako
merkatariarentzat, norbere familiaren historiak osatzen duen ondarearen artapena
bereziki kezkatzen dien gaia da. Eta gero ikusiko dugun bezala, pentsamolde
hau eusten duen gizarte-bilbea bere neurriko oroimen idatzizko agiri egitura
batean oinarritzen da.

XV. mendearen bukaeraz geroztik sarritan ematen dira Europako estilo
garbieneko leinuei buruzko historia eta kronikak, bereziki hiriguneetan eta
notari, merkataria eta «letratu»ei buruzkoak. Negozioa aurrera eramatea ahal-

(2) Agiritegiei buruzko «Archivum» nazioarteko aldizkaria (XXXVII Bol.1992)
Genealogia eta Agiritegiei eskainia dagoela gogorarazi nahi nuke.

mentzen duen kontabilitatea edo eskubide eta obligazioak bermatzen dituzten eskriturekin batera deitura desberdinetako arbasoen, aurrekoen, ahaideen zerrendak idazten hasi ziren. Honela kontatzen digute adibidez Lope García de Salazar jaunaren Kronikak Azkoitiko eskribau zen Ferrán Martínez de Garraza eta Elgetako Jaolazako jaun zen Pero Ruiz de Ybarrak XV. mendean eta Isasondoko Ochoa Alvarez de Ysasaga jaunak XVI. mendearen hasieran egiteko gai zirenari buruzko kontuak.

Lope Martínez de Isasti izan zen beharbada Gipuzkoa osoko *Who's Who* bat finkatzeko lehenengo saio serio eta zientifikoa egin zuena, XVI. mendearen bukaera eta XVII.aren hasieran hiriz-hiri pertsonaia eta familia askoren datu biografikoak eta nolabait genealogikoak sistematikoki bilduz, honek oraindik ere behar bada merezi duen balioa jaso ez duen izugarrizko lana osatzen duen bolumen lodi bat idatzi baitzuen. Lan hau 1625ean bukatu bazuen ere lehenengo aldiz 1850ean Foru Aldundiak argitaratu zuen arte ez zen ezagutzera eman eta hau ere Gipuzkoako beste genealogista handi eta ezezagun baten kezka eta interesari esker: Antonio M^a de Zavala y Aguirre (Azkoitia, 1732-1811).

Noski, mende guzti hauetan zehar asko dira agirietan eta ahozko tradizioan oinarrituz beraien historia jasotzen eta idazten duten familiak. Hauetako testu batzuk gorde eta argitaratu ere egin dira. Orain arte argitaratu direnetatik garrantzitsuenak Garibayek bere *Memorias* idazlanean familiari eta hauen ezkontideei eskainitako orrialdeak, eta Oñatiko Lazarraga familiaren genealogia dira (3).

Oso ugariak dira 1550 eta 1750 urteak bitartean idatzitako historia genealogikoa duten Gipuzkoako leinuak, batzuek zuhaitz soilaren irudiare-

- (3) Memorien jatorrizko eskuizkribua «Real Academia de la Historia»n gordetzen da; P. de GAYANGOS-ek argitaratu zituen 1854an «Real Academia de la Historia»ren «Memorial Histórico español» idazlanaren VII. bolumenean. Monarkiak izan zuen lehenengo genealogista kontzientziatsu eta sistematikoa izan zen eta ondoren beste askok erabiliko zituzten eskuizkribuen egile den honek ordezkatzeko duen garai hartako genealogiarekiko interes garbia islatzen dute hauek. J. CARO BAROJAK irakurtzea gomendatzen dugun «*Los vascos y la historia a través de Garibay*», Txertoa, 1972, azterlana eskaini zion. Lazarragaren eskuizkribuaren zati batzuen kopiak agiritegi desberdinetan gordetzen dira eta M^a J. COMAS ROS-ek argitaratu zuen «*Juan López de Lazarraga y el Monasterio de Bidaurreta*», Barcelona, 1936, idazlanaren 87. orrialdetik 150. orrialdera, «Biblioteca Nacional»eko eskuizkribuen ataleko 11263 zenbakia duen kopia modernoan oinarrituz. Eskuizkribu honek gutzia jasoko zuen, hau da, XVI. mendeko lehen zirriborroetatik neurri handi batean 1593an idatzi zen behin-betiko aleraino jasoko zuen edizio kritiko bat eskatzen zuen.

kin eta datu biografikoak jasotzen dituen narrazioaren itxurakoak besteak. Eskualde bateko familiez sistematikoki arduratzen den «genealogista» baten kasua ere badugu: Domingo de Lizaso Donostiako notaria da hau eta honek XVIII. mendearen lehen herenean idatzitako Nobiliarioa (1910 urterarte argitaratu ez bazen ere) gora beherak dituen idazlana izan arren probetxagarria da (4).

XVI, XVII eta XVIII. mendeetan Gipuzkoako gizarteak bi sistema desberdinen inguruan antolatuko du bere genealogiarekiko interesa:

1. estamentu zuzendaria, gutxi gora behera 250 familiaren inguruan arian-arian biltzen zena, genealogia azterlan gehien sortu zituena da. Hauetako gehienek eskuizkribuak argitaratu gabe gordetzen dira agiritegi publiko eta pribatuetan. Azterlan hauetako gehienek maila eta balio zientifiko onargarria dute eta familia bertako erudituek idatziak izan ohi ziren. Egile hauen artean ezagunenetako bat J. De Olariaga Bergarako presbiteroa izan zen, Felipe V erregearen Kronista zen Luis de Salazar y Castro-ren berriemaile izandakoa (5).

Gehienetan interes ekonomikoak defendatzeko (oinordetza-auzietan eskubideak defendatzeko) edo ospe soziala lortzeko (ezkontza edo bilkura sozialak goratzeko oinetxetasunak) idatzitako lanak izaten ziren baina gutxi-naka-gutxinaka helburu desberdinetarako erabilia izango zen informazio kopurua handitzen zuten.

2. herritarren gehiengoak, euskaldunak eta alfabetatu gabeak gehienak, gutxitan jasotzen zituen idatziz. Mugikortasun sozial gutxiko mundu itxi

(4) Notaritzaren eta Epai lanetan ohitutako eskribauaren lan-metodoa islatzen duen Lizasoren Nobiliario hau bere eskribau lanetan (testamentuetan, ondasun eskaeretan, etab.) antolatzen zituen agiritegien jabe ziren familiei buruzko azterlanaren eta, historikoki faltsuak baziren ere «literatur genero» gisa oso iradokorrak ziren datuz beteriko zenbait Arma Ziurtapenen bildumaren nahasketa da. Nobiliarioa ez da lan zehatz bat eta gainera honen zatiak bakarrik gordetzen dira: lehenengo bolumenaren 2/3 gutxienez falta zaizkio.

(5) Salazar y Castro (1658-1734), XVII. mendearen bukaeran eta XVIII. mendearen lehenengo erdian Europan egindako azterlan genealogikoen egile garrantzitsuena izan zenak goraipatu zuen oso ezaguna egin zen bere «*Historia de la Casa de Lara*», Madrid, 1694-97, idazlaneko IV. bolumenean. Bere eskuizkribuen bilduman (3.4.5. erf. kap.) Olariagaren eta honen (nahiz Salazarren) berriemaile zen Gazteizko Sarriá Pateminairen azterlan genealogiko desberdinak gordetzen dira. Guztiak oso onak dira baina bereziki Lazkao Etxeko Jaunei buruzko Sarriá-rena (XVII. mendearen bukaerakoa) eta Bergarako Jauregitarrei buruzko Olariagarena.

batean nahiko erraza egiten da ahaidekotasun eta loturen oroimena gordetzea. Horrela gertatu izan da, ez dezagun ahaztu, orain dela urte gutxi arte (6).

Inplizitoki aipatzen dudan eta gure ikerketa genealogikoaren bitartez puntualki besterik ez bada ere argitu edo aztertzen saiatuko garen gizarte-egiturari buruzko zenbait ohar egitea beharrezkoa da dudarik gabe.

Gaia ez da erraza eta aztertzen ausartuko diren adituen taldea beharko duen analisi sakona eskatzen du. Zera esan nahi dut; Gerra Karlisten ondoren ez da Gipuzkoako Historian gizarte-historia baino gehiago bihurritu den elementurik ezagutu. Ez dago erdiaroko banderizoei, funtzionari barroko jatorrei, eruditu kultu ilustratuei, garai eta toki guztietako baseritar zoriontsuei edo kapitalismo aurreko merkatarari eskuzabal eta elizkorrei buruzko topikoz beteagoa dagoen besterik; hauek, euskarri historiografiko zentzudun gutxi ematen duen gure historia honetako martiztar bihurtu dituzte talde sozial hauek guztiak. Familia jakin batzuei, hauen errentei eta statusari buruzko ikerketa genealogikoak honi guztiari buruzko argibide asko eskainiko dizkigu.

Topiko guztietatik ihes egin nahian, liburu honek aztertzen duen ikuspuntutik erabilgarri izango direlako kontuan izan beharreko erreferentziak ondorengo hauek izango lirатеke (7). XVI. mendetik XIX.era:

1. Antzinako Erregimeneko Gipuzkoako gizarte estratifikazio sozial konplexurik ez duen gizarte estamentalaren. Leinu jakin batekoa izatea diskriminazio sozialerako arrazoi izan zitekeen, errenta mailatik eta bestelako faktore ekonomiko jakinetatik eratorritako diskriminazioa hain zuzen. Mendeen igarotzearekin bakarrik, eta behar bada XVIII. mendearen hasierarako, sortu zen *klase kontzientzia* edo kasta

-
- (6) Alde honetatik ez dugu noski testu edo agiri idatzirik izango. Baina bai sarritan kalitatezkoa den eta genealogiari buruzko zeharkako informazioa ematen duten agirietan kontuan izan beharreko informazioa: auzietan lekukoek egindako azalpenak, adibidez.
- (7) Gai honi buruz dugun bibliografia ugaritik aukeraketa bat egin beharra dago. Aditua ez den irakurleak dagoeneko P. FERNANDEZ ALBADALEJO egilearen «*La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1831: cambio económico e historia*», Akal, Madril, 1975, eta J. ARPAL egilearen «*La sociedad tradicional en el País Vasco*», 1979, klasikoak ezagutu behar lituzke. Baita berriagoa den L. CASTELLS ARTECHE egilearen «*La modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*», Siglo XXI. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1986, liburu oparoa nahiz CRUZ MUNDET, J.R. egilearen «*Rentería en la crisis del Antiguo Régimen (1750-1845)*», Rentería, 1991, eta URRUTIKOETXEA, J. Egilearen «*En una mesa y compañía*» Deustuko Unibertsitatea, Mundaiz, 1992, doktoretza tesiak.

kontzientzia estamentu zuzendarian. Errentarekiko desberdintasun sozialerako Gipuzkoak ematen zituen aukerak gutxi zirenez, deitura berdina zuten eta *leinu* berdinetik zetozen pertsonak ahaidetasun kontzientzia mantentzera bultzatu zituen, haien bizimoduak aski desberdinak biziren ere. Goimailako famili askok zituzten estamentu baxuagoetan hurbileko ahaideak eta honek, hauen gizarte mailaren igoera nahiko berria dela adierazten digu. Horregatik, gaur egunerako ariketa demokratizatzaile osasuntsua izateaz gain, uztegabeko asko ematen dizkigu eta topiko asko txikitzen ditu ikerketa genealogikoak.

2. nagusiki lurraldez kanpoko merkataritza edo funtzionari iharduerarekin zerikusia zuten faktore ekonomikoek eteten zuten mugikortasun urriko gizartea zen
3. rol oso zehatzak eta itxuraz ongi definiturikoak zituen gizartea zen, perimetro oso egonkorra eta «ezkontza-merkatua» deitu dezakeguna-rekin harreman estuak zituena: maiorazkoa (eta ez zaharrena), ezkontutako bigarren, hirugarren, etab. anai-harrebak, ezkondu ezin izan zuen ezkongabea, erlijiosoak, militar/mariñelak eta administrazioan karrera egiten zuen funtzionaria, kanpoan bizi eta lan egiten zuen merkataria edo gehienetan arrazoi ekonomikoengatik erbesteratuak. Eta ezer gutxi horrez gain.

Bere izaera noblea beti kontuan zuen gizartea zen, bere burua nobletzat jotzen zuena eta tradizioz beti hala sentitu izan zena. Perimetro nahasiko egitate noblea, batez ere «besteei», beste lurraldeetako biztanleei dagokionez definitzen zena, behe erdiaroan konfiguratu ondoren XVI. mendean zehar teorikoki definitu eta «leinu ezaguna»ri loturiko «kaparetasun unibertsala»ren kontsolidazio juridikoarekin egitateetara igaro zena, hau da, gipuzkoar guztiak, eta egitate honetan agirizko froga den bere baliokidea (kaparetasun-espeditentea) gero ikusiko dugun bezala instantziajuridiko desberdinetan eztabaidatu zen.

1.2 AGIRITEGI-FONDOA, INFORMAZIO ETA IKERKUNTZA GENEALOGIKORAKO ITURRIA

Izaera genealogikoa duen edozein ikerketarako oinarria agiritegiko agiria da. Agiri-serieetan antolaturik eta XIX. mendean geroztik garatu ziren administrazioako Zerbitzuetan orain ezagutzen ditugun bezala gorde diren agiritegietako agiriek agortzen ez den iturri bat osatzen dute, bai duten informazio aberatsagatik eta bai edozein ikerketa genealogikorako duten bolumenagatik.

Antzinako Erregimeneko gizartea, bere harreman sozialak, ekonomikoak eta bestelakoak agiri idatziaren inguruan antolatzen zituen gizarte idazle bat zen. Historian zehar, gipuzkoar gehienek, euskaldunak eta alfabetatu gabeak izanik ere, izaera desberdinetako «negozio»ekin loturik, beren izenak jaso dituzten instantzia administratibo desberdinetatik eta bestelakoetatik igaro izan dira beraien bizitzetan zehar: bataioak inskribatu zituen apaizetik hasi eta zentsua edo testamentuaren eskritura eta protokoloa egin zuen notarira, «euskara hizkuntza arruntetik itzulita» lekukoaren azalpena jasotzen zuen autotako eskribautik ordainagiri edo «conoscimiento» delakoa jaulkitzen zuen administratzaileira.

Sortutako agiri gehienak orain arte gorde dira, gero ikusiko dugun bezala ordezkari-tza txarragoa izan duten zona, garai edo arazoak izan badira ere.

Agiri hauek guztiak, ezagutu behar diren irizpide batzuen arabera antolatu ziren sortu ziren une bertatik. Eta ezagutu behar den historia baten arabera ere gorde ziren. Ikerketa genealogiko bat edo beste edozein motako ikerketa bat gutxieneko arrakasta eta jatorrasun zientifikoz burutu eta amaitzeko era bakarra, ditugun agiritegi-iturriak ezagutzea eta hauek errendimendu eta profesionaltasun handienarekin ustiatzen jakitea da.

1.3 BIBLIOGRAFIA GENEALOGIKOA

Zientziaren edozein arlotan bezala, askotan informazio-iturri oso baliagarria izan daitekeen Europako genealogiari buruzko zenbait klasiko, metodologia, emaitzen aurkezpena, eta abarren erakusle eta adibide gisa ezagutzea komenigarria izan daiteke beti ere.

Alde batetik, sarrera gisa, herrialde desberdinetako gai honi buruzko egoera zein den azalduko duten zenbait obra ikusiko ditugu eta bestetik kontsulta genealogikoko liburuak, hiztegiak, urtekariak, familien zerrendak, etab., informazioa zuzenean biltzeko erabilgarri izango zaizkigun liburuak, alegia.

Sarrera erabilgarrien artean egile frantsesena daude P. DURYE-ren «*La Genealogie*», Coll. «Que-sais-je?», 917 zk., Paris, P.U.F., 1979 (5. ediz.) eta taldean egin eta J. VALYNSEELE egileak zuzenduriko «*La Genealogie. Histoire et pratique*», Larousse, 1991; Sir A. Wagner ingelesaren «*English Genealogy*» (Londres, 1983). Gaztelaniaz berriz (CSICen) «*Instituto Salazar y Castro*»k argitaratu zuen «*Apuntes de genealogía, heráldica y derecho nobiliario*» sarrera orokor gisa erabili daiteke. Obra guzti hauetan genealogiaren alderdi praktikoari buruzko oharra aurkitzen ditugu: zientzia honen historia laburra, bere garapenaren funtsezko urratsak, doktrina genealogiko klasikoa, informazio eta taula genealogikoak jaso eta aurkezteko modu eta metodoak, familiari buruzko «dossier» bat landu eta aurkezteko moduari buruzko oharra, etab. Alderdi hauek guztiak ez dira lan honen xede, beraz ez dut uste hauek gehiago aztertzea merezi duenik.

Artxibariaren ikuspuntutik ikusita eta orokorrean publikoarentzat pentsatuta Frantzia eta Britainia Handian ere argitaratu ziren zenbait lan oparo. Bereziki aipatu nahi nuke jadanik klasi-

kotzat eman daitekeen G. BERNARD-en «*Guide des recherches sur l'histoire des familles*» (Agiritegi Nazionalak, París, 1981), mugaz bestaldeko herrialdean probintzietako Agiritegi-Zerbitzuek [:departamentuetakoek] argitaratutako antzeko azterlan-serie bateko adierazgarriena. Britainia Handian antzinatek datorren ikerketa genealogikoagatik kezka gizarteko estamentu guztietan eman zen; XIX. mendearen erdialdera argitaratu ziren ikerketarako gidaliburuak, orokorrean publikoarentzat pentsaturiko ikerketa genealogiko mota baten benetako eredu bihurtu ziren eta J. COX & T. PADFIELD-en «*Tracing your ancestors in The Public Record Office*», Londres, 1990 (4. ediz.) eta C. SINCLAIR-en «*Guide to Ancestry Research in the Scottish Record Office*», 1990 lanekin lortu zuten puntu gorena. Gaztelaniaz ez dugu antzeko lanik.

Egiazko literatura genealogikoari dagokionez, eta Gipuzkoako historiarekin lotura gehien eta harreman zuzenenak izan dituen Europako zonetara bakarrik mugatuz, zerrenda oso luzea izan daiteke noski. Frantzia bakarrik G. SAFFROY-ren 5 bolumeneko bibliografia klasiko monumentalak (París, 1968-1984) 52.222 erreferentzia jasotzen ditu 1983. urterarte. Espainiako Estatuan, eta «Biblioteca Nacional»eko fondoak bakarrik aipatuz, B. MUNICIO eta L. GARCIA CUBERO-ren argitaratutako katalogoek (Madrid, 1958, 2 bol.) eta L. GARCIA CUBERO beraren Eskuizkribuek (Madrid, 1992) argitaratu eta ezagutu diren lan gehienak biltzen dituen zerrenda zabalaren berri ematen dute. Hemen ere tradizioa antzinatek dator eta Espainia izan zen Bibliografia genealogiko osatu bat izan zuen lehen herrialdea, J.L. CORTES-ek G.E. DE FRANCKENAU izengoitiarekin 1724an bere «*Bibliotheca Hispanica historico-genealogica-heraldica*» argitaratu zuenean. Hemen 1490 lan biltzen dira (750 egilerenak) eta hauetako asko oraindik eskuizkributan gordetzen dira. Italia eta Belgikak ere gai honi buruzko bibliografia nazionalak dituzte; lehenengoaren kasuan GENNO eta SPRETTI-renak, zoritxarrez jadanik zaharkituak, eta bigarrenaren kasuan R. LEJOUR-enak. Britainia Handian erabilgarria da jadanik klasiko bihurtu den MOULE-ren «*Bibliotheca Heraldica*», 1822 (1970ean berrargitaratua).

Euskadirako erreferentzia garbia J. BILBAO-ren «*Euskal Bibliographia*» da, *sub voce Genealogia* (IV. bol., 17-25 or. eta Eraskinak) da eta bertan orain arte argitaratu dena jasotzen da xehetasunez (dagokion 1970-85 eraskinarekin). Zehazki Gipuzkoari dagokionez, bibliofilo handi eta eruditu genealogista izan zen Amadeo DELAUNET donostiarraren liburutegiko Katalogoa dugu, bere heriotza ondoren 1960an argitaratu zena.

Bibliografia hauek erabilgarriak dira informazio puntuala bilatzeko baina, beraien ezagutzagatik nahiz gaur egun ere duten eraginkortasun informatzaileagatik Europako monumentu genealogikotzat har daitezkeen zenbaiten ezagutza ezin da «kultura genealogikoa»rekin ere ordezkatu. Ematen duten informazioa hautakorra bada ere, hala aintzatetsitako tituludun nobleziari mugatua egon ohi da orokorrean. Ikerketa eta bilketa lan hauek, joan den mendean geroztik Europako herrialde gehienetan *Almanach de Gotha* (1764etik 1944ra) ezagunak imitatu nahian hobeto edo okerrago argitaratzen ziren «Serie de Anuarios de la Nobleza»rekin osatu behar dira (8).

(8) T. FREIHERR v. FRITSCH-en «*Die Gothaischen Taschenbücher Hofkalendar und Almanach*», C.U.Starke Verlag, 1968, idazlan alemaniarrek Europan 1966. urterarte argitaratu zen guztiaren zerrenda xehekatua jasotzeaz gain «Almanac de Gotha»ren historia xehekatua, bere bolumen guztien zerrenda eta argitaratutako familien zerrenda alfabetiko bat ere biltzen ditu.

Gainbegirada hautakor baina adierazgarri bat ematerakoan beharrezkoa da J.W. IMHOFF (1651-1728) egile alemaniarraren lanak aipatzea, bera baita Frantzia, Espainia, Britainia Handia, Italia eta Alemaniako familia nobleen taula genealogikoak bakarrik egiteari Europan ekin zion lehena. Frantzian berriz Pére ANSELME izenez ezaguturiko obra da erlijioso aditu desberdinek burututako lanaren emaitza. Honek 9 bolumenetan argiratu zuen xehetasunez (1726-1733ko azken eta behin-betiko edizioan) Frantziako Errege Etxeen, Frantziako «Pairs»en eta Koroako Ofizial Handien nahiz «Saint-Sprit» Ordeneko Zaldunen genealogia; L. MORERI-ren Hiztegia (10 bolumeneko azken edizio osatua 1759koa da) (9), Frantziako familiez gain Europako beste batzuen genealogia onak argitaratzen ditu, hauetako asko Imhoff-engandik hartuak; eta azkenik XVIII. mendearen bukaerako LA CHENAYE-DESBOIS & BOUDIER-en 19 bolumeneko hiztegia (azken eta behin-betiko edizioa 1863-1876koa) aurrekoen jarraipen gisa erabil daiteke, batzuetan kontuz erabili behar bada ere. XIX-XX. mendei dagokionez erabilgarria da A. REVEREND-ek Frantziako Iraultza eta Inperioaren ondorioz jaio zen noblezia funtzionari eta militarri buruz egindako lana.

Antzinatik azterketa genealogikoetan diharduen eta Erreinu Batuan kontsultarako erabiltzen den lana BURKE'S egile oso ezagunaren «*Genealogical and Heraldic History of the Peerage, Baronetage and Knighthood...*» (azken edizioa, 105garrena, 1970ekoa da eta 1992an berriro argitaratu zen) 1826an argitaratzen hasi zen eta Europako ezein herritan ez du parekorik bere xehetasunari dagokionez. Autore beraren «*Landed Gentry*» lanarekin osatu zen (azken edizioa 1965-72koa, 3 bol.) (10).

Italiak, gipuzkoar askok administrazioan edo ejerzitoan karrera egin zuten herri bat izanik, baditu bi oinarrizko lan; 1819 eta 1852/5 bitartean Pompeo LITTA Milanoko konteak argitaratu eta gero beste egile batzuek jarraitu zuten «*Celebri Famiglie Italiane*» lana, Europan inoiz egin den monumentu genealogiko ederrenetako bat izan daiteke behar bada. Bestea berriz V. SPRETTI-ren hiztegia da (8 bol., 1928-1936). Belgikan, XVI. mendearen bukaeraz geroztik Oñatiko Arrazola edo Zumaiako Mancisidor familiek garrantzi handia izan zuten herrialde honetan, F. GOETHALS-en Hiztegia (4 bol., 1849-1856) eta XIX. mendean zehar familia bakoitzak argitaratutako historiak biltzen dituen «*Annuaire de la Noblesse de Belgique*» ditugu.

Alemaniako Estatu nobleziarentzat W. K. von ISEMBURG Printzearen lanak (1903-1956) aurreko guztia biltzen eta eguneratzen du (11).

-
- (9) 1753an honen 10 bolumeneko gaztelaniazko edizio bat egin zen, hondarrabitarren biloba zen J. de Mirabel y Casadevantek zuzenduta hain zuzen.
- (10) Aipatutako Wagneren liburuan Britainia Handiko genealogiaren bibliografiaren historia egiten da eta jakin-nahia duen irakurleari gomendatzen diot. Britainia Handia da oraindik gaur egun ere noblezia titulu *guztiak* eta historian zehar eduki dituztenak ordena alfabetikoan jasotzen dituen oinarrizko erreferentzia osoa izateko lan bat duen herri bakarra.
- (11) Alemaniako Estatuarentzat, erteuropako herrialdearentzat eta orokorrean aipatutako herri guztientzat oso erabilgarria da «*L'Ordre de la noblesse*», Paris, [1978], I. bol., lana, sarrera gisa dituen 442 orrialdeetan Alemaniako Estatu bakoitzari, Errusiari, Baltikoko Herriei eta Hungariari buruzko bibliografia erabilgarria barneratzen baita.

Espainiako Estatuan eta zehazki Gaztelan geratzen bagara, bibliografia generiko garrantzitsuena Luis de SALAZAR Y CASTRO (1658-1734) egilearen klasikora eta honek idatzitako Lara (4 bol., 1694-97), Silva (2 bol., 1685) eta Fernán Nuñez (1682) Etxeei buruzko eta azkena Farnese (1716) (12) Etxeari buruzko oinarrizko lanetara, eta berriagoa den Fco. FERNANDEZ DE BETHENCOURT (? -1920) egilearen 10 bolumen bakarrik argitaratu ziren «*Historia Genealógica de la Monarquía Española.. Casa Real y Grandes de España*» (1897-1920) lan monumentabera mugatzen da.

Azkenerrako utzi dugu Euskadi eta zehazki Gipuzkoa. Jadanik aipatu diren zenbait klasisoz gain, genealogia zientifikoa eta ikerketa landu dutenak ez dira asko izan; J. Bilbaok jaso dituenen artean asko nabarmentzen da Arrasateko J. C. GUERRA (1810-1941), «*Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa según el orden de sus familias pobladoras*», San Sebastián, 1928, klasikoaren egilea eta gero xehetasun gehiagoz aipatuko dudana; Adolfo, URQUIJOKo Kontearen azterlanak (1866-1933), Fernando DEL VALLE LERSUNDI-renak (1887-1970), Amadeo DELAUNET-enak (1885-1958), TOLA DE GAYTAN-eko Markesarenak (1878-1964) eta J. MARTINEZ-enak dira garrantzitsuenak (13).

(12) Lan hauek «Real Academia de la Historia»n gordetzen diren eskuizkribuen bilduma zoragarriarekin osatzen dira, zeinak M.de SIETE IGLESIAS eta Baltasar CUARTERO egileek 1949-1979 urteak bitartean argitaratu zuten (eta 78.584 sarrera deskriptibo jasotzen dituen) 49 bolumeneko Katalogoan, «*Don Luis de Salazar y Castro y su colección*», Discurso leído... por el Excmo. Sr. D. Antonio de Vargas Zuñiga y Montero de Espinosa, Marqués de Siete Iglesias, Madrid, Real Academia de la Historia, 1973» erreferentzian deskribatzen diren.

(13) Garai horretakoak dira PEREZ DE AZAGRA, A.ren lanak ere, Butrón eta Idiaqueztarrei buruzkoak; baita euskaldun eta nafarrei buruzko titulu eta abarren gaineko lanak ere. Akatsez betetako lanak dira (asko inprimatzean egindakoak), baina batzuetan zuzena den informazioa ugaria ematen dute. Informazioa hori erabilgarria izaten da zenbaitetan, baina kontuz ibili beharra dago beti.

2. AGIRITEGIKO AGIRIEN LOGIKA

2.1 AGIRI-ITURRI MOTAK

Nondik hasi ikerketa bat?, zein iturri erabili?, zein ordenatan?, nola lortu informazio gehiena? Hauek dira Agiritegi batean lanean hasten denak edo edozein gairi buruzko ikerketa bat hasten duenak egiten dituen galderak.

Galdera guztiak erantzuteko, azken mendeetan sortutako agiriak zein motatakoak diren, zergatik sortu diren eta gaur egun zein egitura duten jakitea beharrezkoa da.

Gaur egun Gipuzkoako Agiritegi-Zerbitzu nagusietan gordetzen diren agiriak (Europa osoan bezala) XIX. mendeko erakunde krisiaren, burgesia erreformistaren gorakadaren, desamortizazioen eta Estatuaren nahiz bere Administrazio indartsuaren garapenaren emaitza dira (14).

Orain axola ez zaizkigun xehetasunetan sartu gabe, XIX. mendean zehar oroimen pribatua Estatuaren oroimenarekin ordezkatzeko joan zela esango dugu. Zuzenbidea *publikatu* egin zen eta pertsonen, hiritarrek, beraien historiarekiko (horrela deitu badaiteke) gero eta erantzukizun gutxiago zuten, hau arian-arian Estatuaren administrazioak beregain hartzen zuen neurrian. Antzinako Erregimenean sortutako agiri gehienak pribatuak ziren (pertsonalak eta notarialak) eta XIX. mendearen erditik aurrera sortutako agiriak berriz publikoak.

(14)Auzi hauek aztertzeko ikus AGUINAGALDE, F. B. de «*Elementos para una historia de los Archivos y de la Archivística desde una perspectiva interdisciplinar*», *IRARGI. Artxibistika Aldizkaria*, I (1988), 63-109 or., artikulua.

Zein da aipatzen ari naizen mende hauetako egoera, hau da, XV. mendetik XIX.eraingoa?

Antzinako Erregimenean agiriaren sorrera alfabetizaturiko eta erakunde oso indartsu eta garatuen inguruan antolaturiko gutxiengoari erreserbatutik bazegoen ere, biztanlego guztiari buruzkoa zen. Agiri idatzia da eguneroko bizitzako elementu material naturalenetako eta oinarrizkoenetako bat; pertsonen bizitzaren alderdi desberdinak *gobernatzen* dituzten instantzia desberdinetatik errepikatutako elementua da gainera.


Gipuzkoako eremuan, jatorriaren arabera honela sailkatu daitezke agiri hauek:

1. agiri notarialak: hiribilduetako eta Alkatetza Nagusietako eskribauak sortutakoak. Ia gauza guztietarako dugu notariaren edo eskribauaren beharra eta ondorioz herri bateko biztanle gehienek egin behar izaten dute zerbait hauen bitartez bizitzan zehar.

2. agiri judizialak: notariak burutzen duen iharduera judizialean zehar idatzitakoak, lehen instantzietan horrela gertatzen baita hiribilduetan. Gipuzkoarrak, inguruko guztiak bezala, oso auzizaleak dira: jurisdikzio kontentziosoarekiko errekurtsioa ohizkoa da eta edozein motatako arazoengatik nahiz gizartearen estamentu guztietan ematen da. Lau instantzietatik igarotzen da: lehenengoa alkatea (udala), bigarrena Herri-barrutiko Auzitegia (probintzia), hirugarrena «Tribunal de la Real Chancillería de Valladolid» deiturikoa eta azkenik, kasu bakar batzuetan erabiltzen zen «Consejo de Castilla» deiturikoa (bere Justizi Saletan).

3. udal eta probintzi-agiriak: udalak eta Batzar Nagusiak beraien Diputazioarekin dira Lurraldeko tokiko administrazioaren adierazpena. Behe erdi arotik hiribilduek biztanle askoren iharduerei buruzkoak ere badiren eskriturez beteta dituzte kutzak, Udalerriaren garapen historikoak eta bere aristokratizazioak famili eta pertsonen agiritan zuten presentzia arian-arian gutxitu bazuten ere.

4. parroki eta elizbarruti-agiriak: elizaren idazteko ohitura ez zen sakramentu desberdinen administrazio eta eskrituraketara mugatzen, bizitza pribatu eta publikoaren beste esparru batzuetara ere zabaltzen zen: Kofradiak, etab. Gotzaindegiko administrazioak sortutako agiri nagusiki judizialak (Baiona, Iruñea eta Calahorrako Elizbarrutikoa) eta Logroñoeko Inkisizioaren Auzitegia bezalako Eliza Katolikoaren beste Erakundeek sortutako agiriak dira bere osagarri eta baliokideak.



1. ARGAZKIA
Ordiziako eskrituren kutxa. 1556
(Ordiziako parrokia).

5. Monarkiaren agiriak lurraldean zituen eskumenen garapenetik eratorriak: Probintziako ihardueran fiskal lana egiten zuen Korregidorearen iruditik, Gerra eta Marina Kontseiluetaraino, administrazioan bertan zuen iharduerak sortutako *gipuzkoarrei buruzko* agiriak edo iharduera honi buruzko agiriak: Indietako agiriak, Orden Militarren espedienteak, etab.

6. partikularrek beraiek idatzi/sortutako agiriak, oraindik gaur egun beraien agiritegietan bertan eta gehienetan oinordekoek gordetzen zituztenak. Alfabetaturiko edonor da era guztietako agiriak idazteko gai: eskutitzak, kontuak, memoriak, etab. Idazten ikasteak ba du aprobetxatzen den osagai erabilgarri bat. Antzinako Erregimeneko gizartea idazle sutsua da eta korrespondentzia-fondo pribatuak dira honen lekuko. Denek idazten zioten elkarrei eta etengabe gainera.

Agiri-iturrien tipologia honen baliokide dira XV. mendearen bukaeratik gipuzkoarrek, gipuzkoarrentzat eta gipuzkoarrei buruz, hau da, beraiei eta beraien familiei buruz (eta horregatik interesatzen zaizkigu) idatzi zituzten agirien sedimentazio-leku bihurtu diren agiritegi-fondo batzuk.

AGIRI-ITURRIA	AGIRITEGI-FONDOA	AGIRITEGI ZERBITZUA
1. Agiri notarialak	Eskribautza bakoitzaren Protokolo-serieak, jatorrizko herrien arabera antolatuturik	* Gipuzkoako Protokoloen Agiritegia a) egoitza nagusia Oñatin (Bergara, Azpeitia eta Donostiako Partidu notarialak) b) Tolosako partidu notariala (Tolosa, Agiritegi Probintziala)
2. Agiri judizialak 2.1 1. Instantzia (udalekoa)	Lau motatako Prozesu Judizial-serieak: a) zibilak; b) exekutiboak; c) lehiaketak; d) kriminalak.	* Udal-Agiritegiak [guztiek ez dituzte gorde]
2.2 2. Instantzia (probintziala)	Lau motatako Prozesu Judizial-serieak: a) zibilak; b) exekutiboak; c) lehiaketak; d) Kriminalak. 4 eskribautzatan banatuak: Elorza, Lekuona, Mandiola eta Uria.	* Herri-barrutiko Auzitegiaren Agiritegia, Gipuzkoako Agiritegi Nagusian (AGG, Tolosan)
2.3 3. Instantzia (lurreko)	Bi motatako Prozesu Judizial-serieak: a) zibilak [exekutiboak eta lehiaketak barneratzen dituenak] eta b) kriminalak. * 12 eskribautzatan sailkatuturik Errege Exekutoria-seriea Kaparetasun-seriea	* «Real Cancillería de Valladolid»eko Agiritegia * <i>BADATOR Datu-Basea (Eusko Jaurlaritza)</i>
2.4 4. Instantzia (nagusia)	Gaztelako Kontseiluaren prozesu zibil eta kriminal-serieak	* «Archivo Histórico Nacional» (Madril) * <i>BADATOR Datu-Basea (Eusko Jaurlaritza)</i>
3. Tokiko administrazioaren agiriak	Udalaren eta Probintziaren eskumenek eragindako agiri eta espedienteak	* Gipuzkoako Udal-Agiritegiak * Gipuzkoako Agiritegi Nagusiko Batzarren Agiritegia (AGG, Tolosan)

AGIRI-ITURRIA	AGIRITEGI-FONDOA	AGIRITEGI ZERBITZUA
4. Eliz-agiriak 4.1 Parroki-agiriak	Sakramentu-agiriak (liburuak) eta Parrokia bakoitzeko administrazioarenak	*Elizbarrutiko Agiritegian zentralizaturiko Parrokietako Agiritegiak (Gipuzkoako Elizbarrutiko Seminarioa) [gutxi gorabehera 1890 arte] * <i>Mikrofilmezko kopia</i>
4. Elizar-agiriak 4.2 Elizbarruti-agiriak	Iruñea eta Calahorrako Eliz-Auzitegien agiri administratibo eta judizialak	* Iruñeako Elizbarrutiko Agiritegia * «Archivo Diocesano de Calahorra-La Calzada»
5. Monarkiaren agiriak	Trastamaratarren, Austrien eta Borboien administrazioek Gipuzkoan sortutako agiriak	* Archivos Históricos Generales del Estado: 1. Histórico Nacional de Madrid; 2. Simancas; 3. A.G. de Indias
6. Famili-agiriak	Familia bakoitzak sortu eta bildutako agiriak	* Famili-agiritegi pribatuetako fondoak

Agiritegi-fondo bakoitzak informazio mota desberdina ematen digu (15) eta 3. kapituluaren hauen probetxamendurako aukerak eta estrategiak analizatuko ditugu.

2.2 AGIRI-ITURRIAREN ETA IKERKETA MOTAREN HAUTAPENA

Ikerketa bat *estrategia* on batekin hastea nahiko da emaitza onak izateko, zer nahi den eta bestalde jakin nahi dena non dagoen jakiten bada.

15) Gipuzkoan ditugun agiritegi-fondo eta Agiritegi-Zerbitzu nagusienei (publiko gehienei eta elizaren batzuei) buruzko oinarritzko informaziorako tresna «*Censo de Archivos de Gipuzkoa*», Eusko Ikaskuntza, 1986, lanak izaten jarraitzen du. Bertan jasotzen den informazioaren kalitatea beti ona ez bada ere, oso ugaria izateaz gain ikerketa bat hasteko balio du. Honi buruzko kontsultak 1994. urtearen erdialdera egin ahal izango dira **IRARGI. Euskal Ondare Dokumentalaren Zentroa (Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila; Bergara)** datu-baseko sarean eta 3.3. kapituluaren [Fondo Judizialak] aipaturiko BADATOR Datu-Basea daude.

Has gaitezen lehenengotik. Eskuliburu txiki honek, esan bezala, irakurleak bere familiaren genealogia itxuratu nahi duela suposatzen du. Hau da, aukera esparru mugagabe batetik abiatzen da; denek lan metodo berdina dute baina gaia edo familia jakin baten hautapenari dagokionez aukerak ia infinituak dira.

Ikertzaileari eskaintzen zaizkion aukeretatik nik maximalista dena aukeratzen dut. Baina honek azalpen bat eskatzen du. Genealogia bat ezin da izen eta jaiotza, ezkontza edo heriotza-data hutsen telefono zerrenda hotz izatera mugatu (hauek lortzea gutxi ez bada ere). Baten eta bestearen *informazio kualitatiboa* biltzen saiatu behar du. Erregistro motako agiri-fondo batetik atera gabe (hasieran sakramentala eta ondoren zibila 1870. urteaz geroztik) oinetxetasunak finkatu eta deituren bilduma egiteko datu desberdinak bil daitezke. Hau guztia, lan honetan berria den batentzat lan handia izateaz gain, akats zientifiko bat dela uste dut.

Gaiaren sarrera labur hau osatzen duten orrialdeetan zehar defendatzen dudan iritziaren arabera, ikerketa genealogikoak biografikoa eta soziala dena jarraitu eta, jarrera, ohitura eta bizipenak ezagutzera zuzenduta egon behar du. Lehenengoa eta erabiliena den iturri motak, hau da, *Sakramentu-Erregistroek* eskaintzen duten eremu mugatutik atera eta ikerketa esparrua informazio kualitatibo eta zabalagoa ematen duten iturrietara zabaltzea. Lan honetan hasi berriak direnetatik, beste ikuspuntuarekin nahiko izanik, *beti zerbait gehiago* jakin nahi ez dutenak gutxi direnez esandako guztiak agerikoa badi-rudi ere, ikerketan laguntza teoriko gehien behar duen zatia da hau dudarik gabe. Hau dela eta, *Parroki-Liburuak* deitu ohi direnengandik desberdinak diren bestelako informazio iturriei loturiko auziak nolabaiteko zehaztasunez garatzen ditu azterlan honek.

Lan perspektiba honetatik, ikerketa aukeren multzoa handitzeaz gain, lana burutzerakoan erabili beharko diren agiritegi-fondoan esparrua asko zabaltzen da.

3. AGIRITEGI-FONDOAK ETA BILAKETARAKO ESTRATEGIAK

Ikerketa genealogiko standard baten logikak ondorengo urrats edo faseak jarraitzen ditu:

1. familiak berak gordetako ahozko datuak edo agiriak bildu. Honek kokatzea ahalmentzen du eta lehenengo galderak eragiten ditu. Inoiz ez da ehun urtetik atzera joaten.
2. datu hauek antolatuko dituen eskema edo taula bat finkatzea. Hau egiteko moduari dagokionez ikertzaile bakoitzari askatasuna ematea pedagogikoagoa dela iruditzen zait. Goian aipaturiko bibliografiak zenbait sistema iradokitzen dizkigu eta ordenagailuaren erabilerak aukera gehiagoren ustiapena adierazgarriki aldatu du.
3. bakoitzari dagokion parroki-liburu sakramentalekin, edo hauen ezean, Erregistro Zibilarekin ikerketa hastea.
4. liburu sakramentaletatik ahal den informazio gehien bilduz belaunaldi osoak berreraikitzea.
5. informazio kualifikatura salto egin eta udal-agiritegietan nahiz judizialetan gordetzen diren Protokolo-Agiritegiak eta fondo judizialak erabiltzea, eta eskaintzen duten berehalakotasunagatik batez ere Kaparetasun-Espedienteen Serieak.


Bibliografia ez da oso lagungarria fase hauetan, zientziaren esparru honetan ez baita asko argitaratu. Aipaturiko «*Ensayo de un padrón...*» J.C. Guerra (1928) berriz erabilgarria izan daiteke. Bere izenburuak nahastu egiten bagaitu ere, Batzar Nagusiek 1773an agindutako inkesta egin zenean Gipuzkoako udaletan gordetzen ziren bezala alfabetikoki ordenaturik, kaparetasun-espedienteak jasotzen ditu honek. Deitura bakoitzari dagokion sarre-ran informazio hau aurkitzen da. Bestalde, bere irizpide pertsonal hauteslea-

ren arabera, berak datuak zituen familiei buruzko genealogia batzuk argitaratu zituen Guerrak, hauek beti ezezagunak edo osoak ez baziren ere. Nagusiki Arrasatekoak, Oñatikoak eta inguruko herrietakoak ziren hauek (Gari-bay-ren Memoriak ia osoki erabili zituen).

Informazio kopuru adierazgarri bat bildu ondoren bere antolaketaren eta literatura historikoak nahiz gai horri buruzkoak emandako datuekin aberas-tearen arazoak aztertuko dira. Hemen entseiu honen mugetatik kanpo atera-zen gara eta baita informazio mota honen tratamendu informatikoari buruz-ko guztia aipatzerakoan ere, honi buruz idatzi diren lan espezializatuen mun-du zabalera zuzentzeko gomendioa egiten dud alarik.


Taldean egindako inkesta sistematizatueta ezik (hauen artean asko helburu demografikoekin egindakoak), datu-base txiki bat diseinatzeko (horretarako DBASE edo KNOSYS gomendatzen ditut) edo emaitzen aurkezpenarako erabiliko den testu trataerarako (horretarako merkatuan oso pakete informatiko onak daude) baino askoz gehiagorako ez du balio ordenagailuak.

FAMILIA OLANO DE AZKOITIA



2. ARGAZKIA

Emaitza zuhaitz genealogikoaren bidez aurkezteko proposamen-eredua.



Parte II.

Núm. 2.

CA

3. ARGAZKIA

Emaizen aurkezpena erroen zuhaitzen bidez. Ikus SALAZAR Y CASTRO, Luis de «Casa de Silva», Madrid, 1685, II. alea, 699 or.

3.1. EGOERA ZIBILARI BURUZKO AGIRIAK

Erregistro Zibila 1870ean behin-betiko ezarri zen arte, egoera zibila Eliza Katolikoak ziurtatzen zuen eskumen bat zen eta honen agiriek instantzia zibil guztietan zuten balioa. Bataioaren, ezkontzaren eta heriotzaren sakramentua jaso izana ziurtatzen zuten inskripzioak, jaiotzari, ezkontzari eta heriotzari zegokion Erregistroko inskripzioekin ordezkatu ziren 1870ean.

Trentoko Kontziliaora bitartean berriz, egoera zibilak ez du kontrolik eta ez da inolako agiritan jasotzen. Hogeita laugarren Bilkuran, 1563.11.11 datan burututakoan, Eliza Katolikoak bataio, ezkontza eta heriotzen Erregistro-Liburuaren derrigortasuna xedatu zuen Parroki bakoitzean eta Parroki-Agiritegiaren artapena eta osaketa zigortzen hasi zen. Arau hauek guztiak ondorengo Zuzenbide Kanonikozko Kodeek garatu zituzten.

Erregistroak, hau da, bataioak, ezkontzak eta heriotzak nolabait zehazki jasotzen zituen Liburuak, XV. mendearen bukaerakoak dira hala ere Gipuzkoan. Orain arte gorde den liburu batek Antzuolan hala egiten zela erakusten digu eta bertan, zenbait apaizek jabego pribatuko hainbait elizetako zenbait jaiotza, ezkontza, etab. idatziz jasotzen zituztela ikus daiteke, XV. mendean Zarautzen Zarauzko Jaunekin gertatu zen bezala. Arau hau denborarekin zabaltzen joan zen eta gorde diren testigantzei esker, XVI. mendearen lehenengo herenean prestakuntza hobea zuten apaiz alfabetatuago eta egunertuagoen belaunaldi berri batek Gipuzkoako parroketan Liburu-Erregistro unibertsalaren praktika sartu zuela baieztatu dezakegu.

Elizako hierarkiak etengabe eta zorrozki zaindu zuen praktika izan zen hau eta Konstituzio Sinodalen nahiz aldizka Gotzainak edo bere delegatuek egiten zituzten Bisitaldi Pastoralen bitartez aktiboki fiskalizatu zen eta aldi berean hauen aginduak zegokion Liburuan jasotzen ziren. Orokorrean, jasota geratzen denaren zehaztasuna, deitura eta ahaidetasunen argitasuna, sakramentu bakoitzerako liburu desberdinak izatea eta, XVIII. mendetik aurrera bataiatutakoen aiton-amonen izena eta ezkongaien gurasoen izena, guztien jatorria, etab. idazteko obligazioa betetzen ote zen hala ez zaintzen zuten.

Gai honetan Elizak zuen eskumena agintaritzea zibilak ere zaindu zuen, Erregistro hauek behar bezala mantentzeak garrantzi handia baitzuen garai hartan, bereziki Gaztelako Koroan Elizatik kanpo inor geratzen ez zela zalan-tzan jartzen ez zenez. Hau horrela zela frogatzen digu adibidez 168lean Bartzar Nagusiek jatorrizko erregistroen mailegua guztiz debekatzeko hartu zuten erabakiak, hauek sarritan edozein motatako prozesuetan froga gisa erabiltzen

baitziren. Batzar Nagusiek «Real Provisión» delakoa jaso zuten 1681.11.12 datan Carlos II.rengandik (1696ko Foru Bilduma, XIV. tit., XI. kap.).

Frantziako Iraultzak Erregistro Zibila sekulartu zuen. Honen ondorioz sortutako Estatu liberalek gizartearen eta ekonomiaren kontrol zorrotzeko dinamika honetan natural eta logikotzat onartu zuten aldaketa hau. Justizi administrazioa egin zen Erregistroaren arduradun eta Espainian aldaketa hau 1841.01.24 datako dekretuaren bidez erregulatu zen hasiera batean eta 1870eko Legearen bidez berriz behin-betiko (16). Udal epaitegiek hartu zuten jaiotza, ezkontza eta heriotza-Erregistroen ardura eta xehetasun handiz erregulatu ziren ordutik aurrera.

Ikerketa genealogiko bat egiteko lehenengo urratsa ahaidetasuna Erregistro honetan oinarrituz finkatzea da, eta ezinbesteko kasuetan ezik Elizaren Erregistroan oinarrituz bada hobe.

Kronologikoki antolatutako, bataiatutako, ezkontutako eta hildakoen Liburuetan jasotako ohar edo inskripzioek zenbait ezaugarri zituzten. Beste batzuen artean:

1. kasu batzuetan denentzako berdinak baziren ere, gero derrigorrezkoa bihurtuko zen sakramentu bakoitzeko liburu bat erabiltzeko araua nagusitu zen.

2. liburu aldaketak sarritan parroko berriaren ekimenez egiten ziren eta ospe arrazoiak zirela eta, ... Parrokiako bikario den jaunaren Liburua oharra eraman ohi zuten.

3. inskripzioen kalitatea hobetzen joan zen XVII. mendean zehar eta XVIII. mendean letrari nahiz aktaren idazketari dagokionez kalitate bikaina izatera iritsi ziren orokorrean. Adibidez, hauek errazago erabili ahal izateko, alde batean izena + deitura barneratzen zituzten oharrak egiten ziren. Apaiz askok liburu bakoitzaren aurkibideak idazten zituzten.

4. datuak, uztarketa inskripzioekin (ezkontzaren ondorengoak eta batzuetan parroki desberdinean jasoak) eta sendotza zerrendekin osatzen ziren.

Inskripzio motaren arabera desberdintasunak ez dira adierazgarriak, parroko bakoitzaren pertsonaltasuna kontuan izaten ez bada. Adibidez Ordi-

(16)1841ean Erregistroaren ardura Udalei emateko egin zen saioak arrakastarik izan ez zuenez 1845ean hau kendu egin zen. Zenbait Udalek garai hartako Liburuak oraindik ere gordetzen dituzte Udal-Agiritegietan.

ziako Lorenz de Lazcaibar parrokoak letra oso bereziarekin idazten zituen bere ohar oparoak 1527ean, edo Mutrikuko Echániz parrokoak herriko anekdota laburrak barneratzen zituen XVI. mendearen erdialdera; edo hainbeste monumentu kaligrafiko eder utzi dizkigun XVII. eta XVIII. mendeetako apaiz hanpurutsuen multzoa (17).

Bataioetan gurasoen eta aitamabixien izena eta deiturak, data (beti ez zen osorik idazten, batzutan urtea suposatu egiten baitzen) eta bataiatutakoaren izena barneratzen ziren. Gero, arian-arian, Iskripzioetako datuak gehitzen joan ziren eta XVIII. mendean zehar lau aiton-amonen deiturak edo inskripzioan parte hartzen zutenen izaera nahiz jatorria gehitu zituzten. Datu hau XIX. mendean osatu zen bakoitzaren ofizio edo lanbidea barneratu zenean.

Ezkontzan ezkongaien izenak jasotzen ziren. Aurreko kasuan bezala, ezkongaien nahiz bakoitzaren gurasoen izenak, deiturak, eta jatorrizko herrien izena gehitzen ziren neurrian osatzen joan zen inskripzioa.

Heriotza berriz izena eta data idatziz bakarrik jasotzen zen eta kasu bakar batzuetan, testamentua egin bazen, noren aurrean egin izan zen idazten zuten.

Oinarrian hain demokratizatzailea izanik, Erregistro *unibertsala* hiribilduaren estamentalizazioa nahiz bertako iharduera ekonomiko edo sozial nagusiak hobe islatzen zituena zela esatea ez da beharrezkoa. *Don* eta *doña* aurretik jarrita, pertsona garrantzitsuenak, ofizioak, jauregi-karguak, etab. nahiz izen edo fama handiko pertsonen buruzko oharra idazten ziren, adibidez Constanza de Ysasaga emakume kreolaren heriotz oharrarekin batera bere guraso eta aiton-amonen izenak, bere hildako senarraren guraso eta aiton-amonenak eta beste zenbait bitxikeria jaso ziren Ordizian 1707.

Erregistro hauek helburu genealogikoen antzeko beste batzuetarako sarritan ustiatu izan ohi dituzte demografoek eta hauen ikerketak oso interesgarriak izan daitezke gure lana egiterakoan (18).

(17) Agiriak ez dira beti behar bezain zuzen idatziak egoten eta zenbait erretorek egin gabe uzten ditu batzuk, deskuido, ahaztuta edo gehienetan hamabostean edo hilean behingo erregistroak betetzen dituztelako. Honi buruzko erreferentzia egiten dute J.I. TELLECHEA IDIGORASEk «*Donostiarras de la década 1562-1572. Un raro "libro de bautizados" de Santa María*» liburuan argitaratutako datuek. BEHSS, 27 (Donostia, 1993) 11-127 orr.

(18) Honi buruz, lehen esan dudana bezala, ikerketa-genealogiko kualifikatua sartzeko oso interesgarria izan daitekeen lan oparo bat aipatu nahi nuke; J. URRUTIKOETXEA-ren «*En una mesa y compañía*», Universidad de Deusto, Mundaiz, 1992, doktoretzatsiaren liburua hain zuzen.



4. ARGAZKIA

Donostiako Santa Mariako bataiatuen liburua, 1565. urteko bataio agiriak. TELLETXEA IDIGORAS, J.I.k argitaratua, «Donostiaras de la década 1562-1572. Un raro "libro de bautizados" de Santa María»an, BEHSS-en, 27. zk. (Donostian, 1993), 36 or.

Erabilera eta ustiapen zientifikorako aholkuak

Eman beharreko lehenengo aholkua liburuak errespetuz eta maitekiro erabiltzekoa da. Ehundaka urtetako historia eta lanaren fruitu izateaz gain garrantzi handiko iturriak direnez oraindik ikertzaile askok erabiliko dituzte. Zorionez jatorrizkoaren ordez gero eta gehiago erabiltzen dira mikrofilmeko kopiak, Gipuzkoako Elizbarrutiko Apaizgaitegiaren kasuan bazala.

Gure hurbileneko arbasoaren bataio-agiritik hasten da. Bertan bere guraso eta aiton-amonen izenak azalduko dira beraz segurtasunez gorako adarra jarraitu ahal izango da. Juan Jaúregui Miner-en seme eta Lucas Jaúregi-ren biloba den 1920an jaiotako Pedro Jaúregi

Echave adibidetzat hartzen badugu, Lucas-en seme Juan-en bataio-agiria bilatuko dugu. Ezin dugu noski urtea jakin baina 20-30 urte bitartean kalkula dezakegu, ezkontzean izaten den batezbesteko adina alegia. Tarteak handiagoak izan daitezke, Pedro Juanek 50 urte zituela jaio baitzitekeen (anai-arreba askoren artean txikiena izanik). Honela 1890-95ra atzeratu beharrean 1870-75 urteetan bilatu beharko genuke. Baina hauek kasu bakan batzuk besterik ez dira izaten.

Batzuk nahiago izaten dute ezkontza-agirietatik hasi. Hauetan gurasoen izenak eta ezkongaien jatorria idazten zen. Aipatutako kasuan, Juan eta Genararen seme den Pedro Jaúregui Echave aurkitzeko bere gurasoen ezkontza-agiria bilatuko dugu eta honek hauen gurasoenekin gorantz jarraitzea ahalmenduko digu, parroki-liburuek baimentzen diguten neurrian; orokorrean 1750. urtearen inguruan egindako ezkontzek, eta zorte on piska bat izanda, XVII. menderainoko genealogia finkatzea ahalmenduko digute goiz bateko lanaren emaitza gisa. Heriotza-datak bilatzea da ordain txikiena eskaintzen duen lana, hauek ez baitute informazio berririk ematen, jadanik jasotako datuak osatu besterik baizik.

Agiri-iturriaren errentagarritasuna oso handia izan daiteke.

Baina ezagutu beharrekoak diren eta ikerketarako gogoia gutxitu dezaketen arazoak ere baditu. Hauetako lehenengoa iturriaren beraren zehaztasuna da. Hau okerra bada guraso eta aiton-amonon jatorriari buruzko datua ezin da jarraitu. Arrazoi bereziengatik ermita edo elizetan ospatutako ezkontzen kasua da hau. Eta baita, familiak emigratu egin duelako edo aiton-amonon, aitamabitxien edo beste norbaiten herrian bataiatu nahi izanagatik, seme-alabak parrokia desberdinetan bataiatzen dituztenen kasua ere. Horrelakoetan konponbide erraza da anai-arreben agiriak aurkitu eta datuak aurrerago osatzeaz fidatzea. Adibide gisa erabiltzen ari garen kasuan, genealogian gora joateko Pedro Jaúregi-ren osabetako baten agiria aurkitzea ez da nahikoa izango (Jaúregui Miner-etako bat) aitarena aurkitzen ez badugu.

Liburu gehienek kalitate oneko aurkibide onomastiko modernoak dituzte eta ondorioz oso erabilgarriak gertatzen dira.

Hala ere genealogia lan *entretentua* izanik pazientzi handia eskatzen duena dela eta ikerketa automatikorik ez dagoela ez da inoiz ahaztu behar. Egiteko modurik onena belau-naldi osoen datuak jaso ondoren, gorako zuhaitza egiteaz gain, aztertzen den deiturari buruz ahal den informazio gehiena osatzea da.

Badaude noski bakoitzak ahal duen modu onenean erabiltzen dituen truku txikiak, hala nola bataiatu eta ezkonduak nahastea edo gradu eta belaualdiak kontuan ez izatea. Esperimentziak berak erakutsiko digu bidea.

3.2. PROTOKOLO NOTARIALAK

3.2.1 Protokoloak

Iharduera notarialak XV. mendearen hasierarako garapen osoa lortu zuten Gipuzkoan. **Ofizialak** deituriko pertsona jakin batzuek pribatuen artean egiten ziren negozioetan fede publikoaren ardura izaten zuten. Era berean

bere presentzia beharrezkoa zen egintza juridiko guztietara nahiz edukin juridikoa zutenetara bertaratu eta hauei zegokien akta idatzi behar izaten zuten (19).


1495ean lurraldean finkatuta zeuden notari edo eskribauak, hiribildu baten edo bestearen arteko aukera egitera behartuak izan ziren. Korregidore zen Alvaro de Porres lizentziatuak pertsona eta hiribilduen zerrenda bat proposatu zuen eta eskribauen antolaketa bat ezarri zen, hau da, Gipuzkoako hiribildu bakoitzari eta Alkatetza Nagusiei zegozkien kopuruak. 1513an, Gipuzkoak Nafarroaren konkistan izan zuen partaidetzaren ondorioz, Juana Erreginak kontzejuek eskribauak izendatu ahal izateko Pribilegioa eman zion Probintziari. Eskribauei buruzko xedapen hau nahiz ondorengo beste batzuk eta Gipuzkoan hauek burutu zuten iharduera 1696ko Foru Bildumako XIV. Tituluan erregulatzen ziren.

Eskribauen antolaketa hiri garapenarekin batera aldatzen joan zen. Zenbait hiribilduk eskribau kopurua bikoiztu egin zuen eta beste batzuek berriz gutxitu. XVIII. mendean zehar egoera egokitzen eta berrantolatzen saiatu ziren. Orokorrean, eskribauek ez zuten bizilekua aldatzen eta hiribildu berekoak izaten jarraitzen zuten izendatuak izaten zirenetik hiltzen ziren arte.

Eskribau bakoitzaren ardura, protokoloen nahiz jasotako prozesuen eta beregandik igarotzen ziren eskrituren artapena izaten zen; guztiak, teoriarik behintzat, bere ondoren izendatzen zenari igarotzen zitzaizkion. Praktikan ordea, eskribauaren ihardueraren emaitza bere ondare bihurtzen zen, kasu batzuetan ia familiaren ondare, eta protokoloak ere ez ziren beti kontu handiz gordetzen.

Bestalde, eskriturak egiteko modua eta protokoloa, hau da, interesatuen eskariz kopia osoan, sinadurarekin, etab.. (Protokoloen artapenerako agindu espresuz gain) «*fede eta kreditu osoa emateko*» moduan jaulkitzen ziren agiriak jasotzen zituen liburua, 1503. urtearen ekaineko Pragmatika ezagun bati esker bakarrik ezarri zen. Ordurarte eskritura guztien protokoloak idazten zituzten eskribauak asko zirela egia bada ere, negozio juridikoko oina-

(19) Gai honi buruzko literatura zientifikoa ez da oso ugaria beraz nire ustez espezialista argiena eta pedagogikoa denaren lanak irakurtzeko gomendioa egitera mugatuko naiz. Erf. J. BONO-ren oinarritzko lana den «*Historia del derecho notarial español. I. La Edad Media*» Junta de decanos de los colegios de notarios de España, 1979, II. bol; «*Los archivos notariales*». Junta de Andalucía, Consejería de Cultura, Cuadernos de Archivos, 1. Sevilla, 1985; eta azkena nahiz sintetikoena «*Breve Introducción a la Diplomática Notarial Española. Parte primera*», Junta de Andalucía. Sevilla, 1990.



5. ARGAZKIA

Oharren erregistroa, Pedro de Zubieta Donostiako eskribauarena. 1495eko apirila (Valladolideko Errege Goi Auzitegiaren Agiritegia. Auzi Zibilak, Alonso Rodriguezen eskribautza, Sign. c, 60/2).

rizko elementuak bakarrik jasotzen zituen *apuntaduren erregistroa* zen ohizkoena, hau da, data, parte hartzaileak (agiriaren egilesleak), lekukoak, negozioaren izaera eta gutxi gehiago jasotzen zuena.

XV. mendean Gipuzkoako hiribilduetan kokaturik lan egiten zuten notari edo eskribauak ehun inguru ziren. Donostian bakarrik dozena bat gutxienez bazegoela jakina da.

Baina aipatu Pragmatikaz geroztik bakarrik zabaldu zen protokoloak serie osoetan gordetzeko ohitura, notariak urtearen hasieran aurreko urteko eskritura edo koadernotxoak enkuadernatuz eta hauek idatziko edo barneratuko zituen liburua aurrez erosiz. Protokoloak normalean kronologikoki antolatzen ziren eta XVI. mendean zehar tipologiaren arabera eskriturak taldekaturik biltzen zituzten protokoloak nahiko sarritan aurkitzen ziren; obligazio-erregistroak, testamentu-erregistroak, etab.

XVI. mendetik XIX.era protokoloak notariaren etxean edo udal-agiritegian gorde ohi ziren gehienetan eta hildako notarien protokolo-liburuak gordetzeko ardura Kontzejuak izaten zuen. Hauek guztiak 1942an bildu ziren Gipuzkoan ehundaka urte zituzten eskritura hauek zentralizatuko zituen Protokolo-Agiritegia (Oñatin, eta lau partiduetako bat Tolosan) sortzeko.

Gipuzkoan idatzitako protokoloen zati bat bakarrik gordetzen da. XVIII. mendekoak eta XVII. mendeko gehienak nahiko ongi gorde badira ere, data hauetatik atzera sortu zirenetatik lagin bat besterik ez da gordetzen. Probintziako Agiritegi Historikoko Notari-Protokoloen serieak 1502an hasi ziren Azkoitikoarekin, eta orokorrean XVI. mendearen erdialdera eskribautza gehienetan jarraitu zuten. 1502. urtea baino lehenagokoak Juan Pérez de Eizaguirre Azpeitiko eskribauaren bi protokolo bakarrik gordetzen dira Azpeitiko Udal Agiritegian, bata 1487-88koa eta bestea 1495-6koa, eta lehenagokoak berriz, beranduago enkuadernatu ziren hiribildu batzuetako zenbait eskritura bakarrik. Hain berandukoa zoritxarrez, zenbait hiribildutako bertako eskribauaren erregistro bat edo bi besterik ez dira gordetzen, batzuetan 4 edo 5 izatera iritsi daitezkeenak edota hauetako bakoitzaren zati bat, guztiak beranduago bildutakoak. XVI. mendean horrela gertatzen zen hiribildu gehienetan, XVII. mendean protokoloak gordetzeagatik kezka gehitu egin bazen ere. Hau kaltegarria da edozein ikerketaren eraginkortasunerako, eskrituren kopuru ezezagun bat ez baita gordetzen. Baina badakigu XVI. eta XVII. mendeetan oraindik XV. mendeko protokoloak erabiltzen zirela. Itxura denez mendeetan zehar galtzen joan ziren hauek.

Honek guztiak ez du esan nahi banakako-eskriturak gorde ez direnik, hau da, negozio juridikoan interesatu eta egilesle zirenen eskaeraz notariak jaulkitako eta hauen oinordeko eta ondorengoek gorde zituzten protokoloen kopiak alegia. Honela, XIV. mendearen bukaerako zenbait eskritura eta XV. mendeko asko gorde dira. XVI, XVII eta XVIII. Mendeetako eskribauen protokoloak gorde ez direnez (adibidez Getariako eta Donostiako guztiak), kasu hauetan ordezkotuturiek beteko dute hutsunea: famili-agiritegietan gordetako eskriturak nahiz ondoreneko auzietan froga gisa aurkeztutakoak.

Bide honetatik aurki daitezke zenbait aurrekari zehatz, hala nola XIV. mendeko zenbait familiren testamentuak eta XV. mendeko beste askorenak.

3.2.2 Eskritura notarialak

Orain ez bezala, iharduera notarialak harreman estua zuen orduan gure arbasoen eguneroko bizitzako alderdi askorekin. XIX. mendean zehar eta batez ere XX.ean iharduera notarialaren alderdi sozial eta ekonomikoak garrantzia galdu zuen eta mendeetan zehar eskribauak garatu ohi zuen iharduera beste erakunde eta egitura sozio-ekonomikoen eskuetan geratzen joan zen.

Indarreko zuzenbidea, **negozio juridiko** desberdinak deiturikoen inguruan egituratzen da. Egungo notariak eskritura mota kopuru jakin bat idazten du eta hauek beraien balio juridikoa bermatzen duen formularioaren itxura izaten dute. Eskritura bakoitzean egilesleak eta negozioan parte hartzen dutenak, honen izaera eta ezaugarriak, balioa ematen dioten klausulak, data eta sinadurak jasotzen dira.

Agiri mota honek ikerketa genealogikorako duen ahalmena ia agortezina da noski. Zenbait dokumentu mota, hala nola testamentuak edo ezkontza-kontratuak, gure ikerketarako iturri ezinobeak dira; baina zentsuak edo obligazioak bezalako beste batzuek fidatzaileen edo, agiria eragiten duten beste zirkunstantzia batzuen bitartez, ahaidetasunei buruzko informazioa ematen digute.

Protokolo batean aurki dezakegunaren sailkapen bat garatu ahal izateko zuzenbide pribatuak edo zibilak finkatzen dituen irizpideen arabera taldekatuturiko **negozio juridiko moten sailkapena** jarraituko dugu eta gure helburua lortzeko garrantzitsuenak direnak analizatuko ditugu.

A. Pertsonen buruzko agiriak.

Ikusi dugun bezala Antzinako Erregimenean egoera zibila Elizak egiten zituen inskripzio sakramentaletan oinarritzen zela ziurtatu ondoren, pertsonen dagozkien agiriak ondorengo hauei buruzkoak izango dira:

1. *egoera pertsonala*:

(1) Adin-txikikoen tutoretza

(2) Zaintza [epaileak eta auzietarako]

Gurasoen eta beste ahaideen izenak barneratzen ditu eta hauen artean tutorea aukeratzen da.

2. *pertsonaren ordezkartza*:

(3) Ahalmena, bere xedea orokorra edo espezifikoa denaren arabera mota desberdinetakoa:

- Auzietarako ahalmena
- Administrazioarako ahalmena
- Testamentua egin, doteak eman, ezkondu, eta abarretarako ahalmena

(4) Ahalmen ordezkaketa

3. *erantzukizun pertsonalaren berrikusketa*.

(5) Barkamena, zer barkatzen den adieraziz

(6) Ondorengo erreklamazioen sari edo kitoa

B. Ezkontza-erregimenari buruzko agiriak

Denboraldi honetan, zentzu estuenean familiakoen onerako leinuaren betebeharrak eta eskubideak arintzera jo du zuzenbidearen garapen orokorrak.

1. *ezkontza-loturei buruzkoak*:

(7) ezkontzarekiko adostasuna

2. *dote-erregimenari buruzkoak*:

Askotan, dokumentu desberdinetan jaso daitezkeen ezkontideen eta familien arteko paktu asko agiri bakar batean sintetizatzen dira:

(8) Herresak, senarrak emazteari

(9) Dotea edo/eta dotea gehitzea

Zehazki doteari dagozkien paktuez gain beste batzuk ere barneratzen dituen agiri-sintesi klasikoa:

(10) Ezkontza-hitzarmenak

C. Ondasun, jabetza eta eskubide errealei buruzko agiriak

Antzinako Erregimenean garatu ziren jabetza formulek, lurzorua jabetzaren (jabari erabilgarria eta jabari zuzena) desmenbrazio-prozesu historikoak eragindako *herentziazko eskubide erreal kopuru handi bat* sortu zuten. Bestalde jabetza komunitariozko formak elkarrekin bizi dira.

(11) Gasaila

(12) Errentamendua

Desberdina, ondasun higiezin bati edo kargu baten erabilera eskubideari baldin badagokio.

(13) Lagapena

Ondasun higigarri edo higiezinen, eskubideen, Ofizio edo karguen eta abarren jabetza edo gozamendua transferituz

(14) Kontzertu edo transakzioa

Orokorrean ondasunekiko auzietara loturik

(15) Fidantza

(16) Zentsu-inposizioa

Finka baten jabari erabilgarria emanez eskubide erreal baten ezarpena, enfiteusis deituriko kontratu klasikoak, Gaztelan **Zentsuarekin** nahastu ohi da (gaur egungo terminologian errolda kontsignatzailea). Eskubidea, zeina betetzen den ala ez finkaren eskuetan dagoen, saldu edo erosi egin daiteke. Beste mota batzuetan, kapital baten salerosketa formularen bidez interesdun mailegua estaltzen du (horrelakoetan ondasunen hipoteka espresua barneratzen du).

(17) Ordainketa [ordainketa -gutuna]

(18) Trukea

(19) Edukitza

Antzinako sinboloak erabiliz (jabe berriari saldutako finkan sartzea, etab.).

(20) Zentsu-luditzea

(21) Salmenta

Mota desberdin askotakoak.

(22) Zentsu salmenta

D. Obligazio eta maileguei buruzko agiriak

Obligazio izen generikoak kreditoa eta bermearekin zerikusia duten negozio juridiko zerrenda luze bat ezkututzen du. Obligazio eskriturek besterik gabe, paktu desberdinen eskema aldakorreko zerrenda konplexu bat jasotzen dute.

(23) Obligazioa

E. Oinordetzari buruzko agiriak

Oinordetza-eskubidea gizartearen bilakaeraren euskarria da, ohiturazko arauarekiko —eta ab-intestato oinordetzarekiko— lehentasuna duen leinuaren oinordetzatik hasi eta testamentugilearen borondatea errespetatzea xedatzen duen indibidualistaraino.

(24) Testamentua

Honen barne antolamendu juridikoa korapilatsua eta aldakorra da, beraz axaleko eskematizazio diplomatiko bat besterik ez du ahalmentzen.

(25) Kodiziloa, edo mortis causa xedapen gehigarria

(26) Mortis causa dohaintza

(27) Maiorazkoa edo Lotura

F. Bestelako agiriak

Eskrituraketa notarialak, XIX. mendean zehar zuzenbide pribatuaren esperru zabaletik banatuta egon diren eta neurri handi batean XIX. eta XX. mendeetan kodifikatu diren egungo laneko zuzenbidearen, zuzenbide fiskalaren eta merkataritza zuzenbidearen zati batzuk beregain hartzen ditu.

(28) Untzi pleitamendua

Kostako notarietan ohizkoa.

(29) Fundazio elizkoiak

Kaperautzen fundazioak, mezetako memoriak, etab.

(30) Ikaskuntza-kontratua

(31) Obra exekuziorako kontratua

Edozein motatakoak: etxebizitzanak, ondasun higigarrienak, untxi batena, etab.

(32) Zerbitzu exekuziorako kontratua

Hauek ere desberdinak eta ordainsari global baten truke.

(33) Merkataritza-kontratua edo Konpainia eta, bidezko bada, honen Likidazioa

(34) Izendapena

Karguena, lanpostu libreena, ofizioena, etab.

Protokolo batean era berean beste eskribauen nahiz interesatuen beraien eskriturak, beren funtzioak betetzen dituzten abokatuenak (adibidez «Contaduria»k eta Ondasun Partiketak) eta beste ofizial eta agintarienak jaso daitezke. Zenbait agirik ehundik gora folio betetzen ditu, hala nola XVIII eta XIX. mendeetan zehar egindako zenbait Partiketa edo Testamentu-judizio.

Ondasunei buruzko eta ezkontza-erregimenari buruzko agirien artean daude **Ondasun Inbentarioak**. Hauek zehazki agiri notarialak ez badira ere (jatorri judiziala dute) protokoloetan testamentuen eta ezkontza-kontratuen eta abarren eraskin gisa barneratzen dira. Hauek ikerketa genealogikorako oso aberatsak izan ohi dira, batez ere beste eskritura batzuetara bidaltzen diguten hildakoaren paperen inbentario bat barneratzen dutenak. Askotan, agiri hauek ondoren protokolizatuak izan diren prozesuetako agiriak izaten direnez, fondo judizialetan aurki daitezke [Erf. 3.3 atala].

Protokoloak beste agiri mota bat ere barneratzen du. Interesatuaren eskaeraz eskribauak idazten eta ziurtatzen (hortik bere ... *ziurtagiria* izena) dituen gai desberdinei buruzko agiriak dira. Honen kopia hainbat helburu desberdinetarako erabili ahal izaten du egileak.

Ghien interesatzen zaizkigun dokumentuak B eta E ataletan bildutakoak dira, hau da, ezkontza-erregimenari buruzko agiriak eta oinordetzari buruzkoak. Ondorengo hiru ataletan aztertuko ditugu hauek.

a) doteak eta ezkontza-hitzarmenak

Agiri mota gisa ezkontza-hitzarmena edo ezkontzako hitzarmen-eskritura nahiko ezaguna eta erraz bereiz daitekeena bada ere, negozio juridiko bezala, esku hartzaileen artean itun anitz barnebiltzen dituen iharduera konplexua da, beste negozio batzuk ere bil ditzakeena, geroago aztertuko dudan maiorazko-fundazioko funtzioa bezala.

Agiriaren oinarria, bakoitzaren familiak ezkonberriei ekarri beharreko edozein motatako ondasunen esleipena da, kasu batzuetan ezkonberriek beraiek egina. Ezkonberrien eta beren gurasoen izenak agertzen dira, eta inoiz, aiton-amona, osaba-izeba edo maiz senar-emaztegaiei ondasunak ematen dizkieten beste ahaideak. Batzuetan ahalmenak barnebiltzen dira,

esleitzaileren batek hala egiten duenean, eta horren hedapena eta luzera aldakorrek dira kasu bakoitzean eman nahi zaion garrantziaren arabera. Emakumeari herresen dohaintzaz gain, beti **oinetxetar itzultze-klausula** deritzona barneratzen da, Antzinako Erregimeneko Gipuzkoako gizarte, ekonomia eta zuzenbidezko bilbearen zutabeetariko bat zena eta agintzen zuenez, edozein ezkontza oinordetzarik gabe desegiten bazen, kide bakoitzaren ondasunak «*atera zireneko*» oinetxe edo jatorrizko familiara itzuliko lirateke. Honek esan nahi du bakoitzaren famili oinordeari itzultzen zitzaizkiola, anai edo iloba batetik hirugarren edo laugarren lehengusuraino izan zitekeena eta lotetsitako ondasunen kasuan oso ahaide urruna izanik, oinorde izan zitekeena, gero ikusiko dugun bezala. Era berean gertatzen da ondasun libreak zirenean, eta azken jabeek besterik xedatu ez zutenean.

Testamentuarekin batera, Ezkontza-hitzarmena (aginduzkoa ez zenez gero beti ematen ez zena, dakarren segurtasun juridikoak orokortzen badu ere) Antzinako Erregimeneko gipuzkoar baten bizitzako agiririk garrantzitsuenetarikoa zen. Kide bakoitzak ezkontzara ekarritako ondasunak deskribatu, elkar-betebeharren erregimena ezarri eta etorkizuneko familiarari ekonomi egonkortasuna ematen zion; orokorrean ondasunak gozamenean lagatzen dituztenen statusa ezartzen zuen eta, azken finean, bakoitzaren zereginak modu desberdinez banatzen. Eta hau, adibidez, baserriarren funtzionamenduan esanguratsua zen. Batzuetan, zuzkitzailearen testamentua ordezkatzeko, kasu askotan beharrezkoa izango ez zelarik.

Adierazi dudan bezala, hitzarmen-eskritura ohizkoa zen XVI. mendean zehar. Hiribildutik landa-zonetara hedatzen zen, eta XVIII. menderako ia beti ezkontzarekin batera zihoan. Lehen, ohiturazko zuzenbideak behargabe-ko bihurtzen zuen. Baserria edo jabetzaren erregimena ohiturazko arauen bitartez eraentzen zen generikoki eta Gaztelako zuzenbidea foru zuzenbidearekin oldarkorki kontrajartzen zuen izaera unibertsaleko arau idatzien hedapenak bakarrik aldatu zuen joera hau. Aldaketa hainbesterainokoa izan zen, XV. mendearen amaiera eta XVI. mendearen hasiera bitartean ez zen arraroa aldaketagarai honek sortutako egoeretan zehazki oinarritzen ziren oinordetza-prozedurak aurkitzea eta, ondorioz, ondoeza juridikokoak eta agiri publikorik ezak, bere garaian beharrezkotzat hartu ez zirenak, 30 edo 40 urte geroago oinordetzako arazoak sortuko baitzituen, horrelakorik idaztea ohizko araua izanik eta egoera juridikoa nabarmenki aldatu zen garaian (20).

(20) Nolanahi ere, ohiturazko zuzenbidez eraendu nahi ziren eskriturak ematerakoan gaztelar arau orokorretatik eratorritako eskubideei espreski uko egiteko ohitura zegoen.

b) testamentu, kodizilo, testamentu egiteko ahalmenak

Testamentugileak, izaera orokorreko bestelako xedapenez gain, aurreko, albokide eta ondorengoak aipatzen zituen. Horrenbestez, testamentua agiri genealogikoa izango da berez. Halere, oso dokumentu berezia da. Ez da bere luzera, egitura edo ordenik adierazten. Egileslearen borondatez idazten zen eta horregatik, interes gutxiko testu laburra izatetik, datu, data eta famili-historiako meatzea izan daiteke. Gipuzkoako testamentuen *urrezko aroa* izan zen XVII. mendea. Finkak deskribatu eta seme-alaba, guraso eta anai-arreben ezteiak datatzen ziren. Familiako kide desberdinen datu biografiko eta egoerak barnebiltzen ziren, etab.

Testamentua, maiz, seme-oinordekoaren ezkontza-hitzarmenaren osagari zen, eta horrela jasoarazi da.

Goi-mailako gizarte estamentuan sarritan maiorazkoa banatzeko erabiltzen zen (aurretik hala egin ez bazen eta hala egitea beharrezko balitz), datak finkatzeko eta eskribauak izendatzeko, azken hauen aurrean interes genealogikoko agiri desberdinak ematen zirelarik (ezkontza-kontratuak, maiorazko-fundazioak etab.). Estamentu eta egoera guztietan zenbait *konfesio* mota egiteko gehien erabiltzen zen agiria da: joko-zorrak, famili-iskanbilak, seme-alaba ez-legitimoak, «ohore»iskanbilak, etab.

Testamentu egitea ohizko iharduna zen, beti, edukitako ondasunak xedatzea zekarren neurrian, asko edo gutxi baziren ere. Bai eta aurreko dohaintza edo kontratuak aldatzea ere. Kodizilio edo testamentuen eraskinek testamentua aldatzen zuten bezala. Ohizko iharduna zen testamentua *itxita* egilestea, hau da, zigilatuta, lekukoen aurrean eta eskribauaren eskuharmen zuzenik gabe, hura egilespena egiaztatzerara mugatzen zelarik, normalean lakreztuta eskuratzen zueneko data ziurtatuz. Testamentugilearen heriotzan irekitzen zen lekukoen aurrean, eta zenbait kasutan, orduan bertan protokolizatzen zen, baina egilespen eta irekidura datek ez zuten bat etorri beharrik (eta garrantzitsua da hau kontuan izatea horietariko bakarra ezagutzen denean). Zenbait kasutan ezkontideari edo beste pertsona bati testamentu egiteko ahalmena egilesten zitzaion, testamentugilearen izenean ondasunak xeda zitzan, gero egiten zen bezala.

Gipuzkoako zona edo eskualde bakoitzean testamentuen tipologia eta egituren berezitasunak ager daitezke inguruko gizarte egitura eta eskribauaren bezeroaren arabera. Zentzu honetan, bitxia da Ataungo baserritarren testamentu-bilduma, haran honetako XVI.etik XVIII.era bitarteko protokoloan

gordeta dagoena. Era berean, eragingarriak dira Aldundiaren egoitza izan ziren hiribilduetan bizi ziren jabe nagusien testamentu luzeak (Azpeitia, Azkoitia edo Tolosa, Donostia desagerturik) edo edozein garaiko merkatari aberatsenak.

c) Maiorazko edo/eta Loturaren fundazioa

XVI. mendetik maiorazkoen erregimena ofizialki amaitzen duten 1820-1841eko lege deslotesletara bitartean Gipuzkoako gizarte eta ekonomi historiako erakunde juridiko oinarrizkoenetarikoak da maiorazkoa, edo agian oinarritzkoena (21).

Printzipioz, Maiorazko eta Lotura terminoak sinonimoak dira eta orokorrean hala erabiltzen dira. Hala eta guztiz ere, ez luke horrela izan behar; lehenengoak Errege Ahalmena behar du fundatzeko; bigarrena, berriz, erabateko legezko indarra duen fideikomiso soila da, nahiz eta izaera subsidarioa edo lerrun gutxiagokoa izan. Lehenengoa estamentu zuzendariaren artean hedatuagoa dago; bigarrenak, berriz, gizarte osoaren erabilera unibertsalekoa izanik, XVIII. mendetik arbitrista eta ekonomisten protestak sortu zituen, horren desagerpena defendatuko zutelarik. Larramendik berak 1754. urtearen inguruan ondokoa esan zuen: «*Hainbeste parrastatzaile eta urritasunen artean, maiorazko asko dago Gipuzkoan. Berandu hasi ziren etxaldekak lotesten, ondasun aberatsak... utseratzen zirela ikusi zutenean, eta arrazoi honengatik ospe eta sari handiko etxe askok iluntasun eta erabateko utzikerian ziruditen. Maiorazko txiki eta errenta laburrekoak badira Gipuzkoan duela urteak, eta asko gainera eta egunero gehitzen dira legitimen eragozpena dela eta...*». Urri dira XIX. mendearen amaieran maiorazkotu edo lotetsita ez dauden finkek.

Maiorazkoa oso negozio juridiko ospatsua da, eta finka edo ondasun higiezin-sorta bat merkatutik kendu eta oinorde bakar bati gehitzean datza, «*elkarrekin joan eta zatiezin*» izan daitezen. Ondasunen azken jabe osoa maiorazkoaren fundatzailea da eta bere ondorengo eta oinordekoek guztiz teorikoa den jabetza osoa besterik ez dute izango, ondasunez libreki xeda ez daitezen neurrian; usufruktudun dira eta Maiorazkoko ondasunak besterendu edo trukatzeko Errege Ahalmena beharko dute (oso gutxitan eskatua). Dotri-

(21) Maiorazkoaren garrantzia eta esanguraren erabateko ideia bat edukitzeko derrigorrezkoa da B. CLAVERO «*Mayorazgo. Propiedad feudal en Castilla 1369-1836*» obra irakurtzea, Siglo XXI Argit., 1989 (2. ediz.).

na juridikoak definitzen ditu bere funtzionamenduaren erregimen orokorra eta bere ezaugarriak, eta eskriturek hura jasotzen dute fundatzaileak sartutako ñabardurekin.



Maiorazkoa behe erdi aroko erakundea da, Gipuzkoan XVI. mendearen hasieran 1505eko Toroko Legeak deituraz ezagututako Gaztelako Ordenamenduaren bitartez hiri eta merkataritza gunetan bakarrik ezartzen dena. Familia zahar eta nagusienek, beren «*leinuak*» «*oroiz aurreko maiorazko*» gisa onartuak izan zitezten auzitan ihardungo direnak, maiorazkoa fundatuko dute, beti ere erakunde gisako maiorazkoa garaiko gizarte guztietan praktikutako primutza-eskubide soilarekin nahasten ez bada.

Maiorazkoaren oinarri ideologikoa, fundazioan ia beti inbokatzen dena, «*leinuen artapena*» da, zatiezina ez direnez gero, hobe iraunarazten direnak. Hau, beti, gainerako seme-alebekiko legitimen banaketari kontrajarriko zaio, maiorazkoari beharrezko likidezia lortzeko zentsuak hartuz zorpetzera behartuko diolarik, eta honekin hain zuzen ere, «*etxaldeen urritasuna*»ren kontrako eragina lortzen delarik. Azken finean, legitima hauengatik, Maiorazkoaren errenten banaketagatik, auzi luze eta garestietara jo behar da. Gero ikusiko dugun bezala, prozesu hauek kalitatezko genealogia eta gizarte-informazioko benetako meatzeak dira.

Errege Ahalmena lortu ondoren, fundazio-eskriturak (oso maiz letra kaligrafiko, inisial berezi, apaindura etabarrez idatzia) honako hauek barnebiltzen ditu:

1. **ondasun lotetsien zerrenda:** nagusia, ia beti ondasun higiezina dena, etxe edo jauregia, kasuan-kasu, eta gainera Maiorazkoari izena ematen diona; eta zenbait landa eta hiri-finka. Zenbait kasutan Jabetasunak (=Zor Publikoa), ondasun higigarri desberdinak (zilarra, koardroak, bitxiak) edo objektu esanguratsu jakin batzuk gehitzen zaizkio. Ez da arraroa merkatarien artean errenta, jabetasun eta zentsu desberdinen gaineko maiorazkoa fundatzea. Baserritarren artean, beti, familiarren baserria izango da, erantsitako lurralderen bat, borda, etab.

2. Maiorazkoaren jabe oinordekoaren **betebeharrak** hartaz «baliatzeko»: odol garbitasuna eta noblezia, ohitura onak, deitura eta armariaren erabilera, deskribatu ere egiten direnak (edo bereziki ospatsuak diren eskrituretan margotzen direnak: honela, Loyolako maiorazkoan [1536] edo Ipeñarrieta-Galdós-ekoan [1617], etab. Ohizkoa da oinordetzatik elizgizonak, mojak, etab. kanpo uztea, ageriko arrazoiak direla eta.



6. ARGAZKIA

Loiolako Sortetxearen Maiorazkotzaren sorrera. Azpeitia, 1536 (Granada de Egako Dukeen Agiritegiko lehen idatzia. DALMASES, C.S.I. «*Fontes documentales de S. Ignatio de Loyola. Documenta de S. Ignatii familia et patria, juventute, primis sociis*», Monumenta Historica Societatis Iesu, vol, 115 Erroma, 1977).


3. fundatu nahi den **maiorazko mota**: fundatzaileak erabakiko du beste maiorazkoren batekin bateraezina izango den ala ez; hautazko izaera edukitzea nahi duen adieraziko du (titularrak ondorengo hurrena hautatzeko aukera izango ote duen) edo aitahaidekotasun zorrotzekoa (emakumeak edo hauen seme-alabak baztertu; hala ez badira ere, aitahaidekotasun zorrotzekoak dira emakumeei azken postuan oinordetza ematen dietenak, eta gehiengo dira). Eta, kasu batzuetan, maio-

razkoko izaera berezia bigarren seme-alabentzat, familiatik hurrengo belaunaldian aterako direnak. Guzti hauek fundatzaileak aurrikusitako bateraezintasunak dira eta, kasu jakin bakoitzean arau juridiko orokorrak modu desberdinean interpreta zitezkeenez Gipuzkoan Antzinako Erregimenean zehar milaka famili-iskanbila sortuko dute.

4. aurrikusitako **oinordetza-arauak**. Fundatzaileak bi aukeretariko bat hautatzen du. Edo *oinordetza-sistema* deskribatza mugatzen da: aitahaidekotasun zorrotzekoa, gizonezkoak emakumezkoekiko lehenetasunez eta zaharrenarekiko itzulketaz, edo gradurik hurrenenak lehenetsiz (seme bat baldin badago, lehenetasuna izango du hildako seme zaharrenaren semeen aldean); edo *ondorengoan izenak* zehazten ditu: bere seme-alaben, anai-arreben, lehengusuen eta bestelako balizko ondorengoan oinordetza-ordena aipatzen du, arrazoiki lerro eta adarren desagerpena aurrikusiz, eta arrazoizko gradu baten baitako ahaideei «*oinordetza deituz*». Beti, **oinetxekotasun eskubidea** edo printzipioa erabat errespetatuz, ordenamendu juridiko honen oinarri eta Gipuzkoan XIV. mendearen hasieratik XIX.era bitartean indarrean egon zena.

Argi dagoenez, maiorazkoaren fundazio-eskritura, agiri genealogiko guztiz interesgarria da. Emakumeen bitartez familia desberdinetan oinordetza-eskubideak barneratzen ditu eta fundatzailearen oinordetza osoa (maiz, ez-legitimoak, legitimorik ezean) familia handi bihurtzen du (oinordetza fundatzailearen ondoren egiten da eta ez aurreko edukitzailearen ondoren) eta maiz «*lehengusu*» izendatzaile komunaren pean familiatzat hartzen da, eta maiorazko bat edo batzuen oinordetza-igurikapeneko egoeraz zeharo jabetzen da, oinordetza-mekanika aurrez-xedatuta dagoelako oinetxekotasun-printzipioaren bitartez (edo *itzulketa-printzipioa*). Igurikapen hau ere dote bezala edo ustezko dote gisa erabil daiteke Gipuzkoakoa bezalako hain ezkontza-merkatu estuan.

Maiorazkoaren existentziak finken zati garrantzitsu bat merkatutik kanpo geratzea dakar eta pertsona edo familia bakoitza ahaidetasun, aurrekotasun eta senidegoen jakinaren gainean egotea, jabetzaren gero daitezkeen maiorazkoak erreklamatzearren, askotan justizia desberdinen aurrean izandako auzi gatazkatsuen ondoren esleitzen direnak. Beharrezkoa da jakitea «*eskubide hobe*a» duten familiak zeintzuk diren eta zergatik, zein maiorazko diren bateraezin eta zein kasutan, etab; eta ez da arraroa ere, adin-gutxiko seme-alabek beren gurasoei bigarrenen maiorazkoak edo bateraezinak erreklamatzearren, honela «*eskuz-esku*» doazelarik.



7. ARGAZKIA

Zubiaurreko maiorazkotzaren oinordekoak ezartzeko zuhaitz genealogikoa. XVIII. mendea. (Zabala Etxeako agiritegia, 52. agirisorta, 12. zk.).

Maiorazkoa eta gizartean duen arrakasta, lehen esan bezala, interes genealogikoz beterik dagoen gizartearen adierazgarri onenak dira. Aurrerakunde hori bermatzen duen beharrezko kultura genealogikoak eutsitako superbizitza ekonomikoaren behar eta interesez betetako gizartea, alegia. Izan ere, aipatutako Bergarako Olariaga bezalako jakintsu desberdinen iharduerak beren ugazaben interes ekonomiko hutsa gordetzen du, horrela, famili-bilbean duten egoera eta beren estatus ekonomikoa hobetzeko aukerak hobeto ezagutuko dituztelarik.

Oinetxekotasun printzipioa eta bere eraskina den *itzulerakoa* sensu strictu aplikatuz, edo lotetsitako ondasunak «oinetxera itzultzeko» printzipioa aplikatuz, (ikusi dugun bezala, beste guztiena ere badena) erraz irudika daiteke genealogia lantzeak duen garrantzia. Oinordetza-auzi orok oinordetza-arau orokorrak eta bere garaian maiorazkoaren fundatzaileak agindutakoak ezagutzera behartzen du, eta dagokion oinordetza «zuhaitza» edo zuhaitz genealogikoa eratzeraz. Oinetxekotasun eskubideak guztiak bihurtzen ditu

beste nolabaiteko familia hurbil askoren oinorde ahalgarri. Mendetan zehar iragandako prozesu honek esku bakarrean finka eta maiorazkoak metatzea dakar, Marqués de San Millánen kasuan bezala, XIX. mendearen hasieran 25 maiorazko zituelarik.

Logikoki suposatzea da maiorazkoaren fundazio-eskriturak xehetasun bitxiez beteta egotea, finka eta mugen deskripzio interesgarriez eta xedapen nabarmenez (Donostiako Beroiztarren kasua bezala, XVIII. mendean XVI. mendearen erdialdeko taula flandriar baten gainean fundatu zutena), eskritura ikerkuntza genealogikorako lehen mailako iturri bihurtzen dutelarik.

Erabilera eta ustiapen zientifikorako aholkuak

Parroki-liburuetan ikertzeak zuhaitz genealogikoa, izen eta daten egitura bat besterik gabe finkatzea ahalbidetzen badu, protokolo notarialetan ikertzeak lehen diseinatutako estrategian urrats eskerga suposatzen du. Bakoitza bere gizarte mailan kokatzea ahalbidetuko du, bere ondasunak eta bere eguneroko bizitzako xehetasun asko eta asko ezagutzea, bai eta bere bizimodua ere, hilondoko inbentarioen azterketatik abiatuz, adibidez, edo testamentu-praktikaren azterketatik. Eta zer esanik ez, ezkontza-kontratu, emandako zentsu eta betebeharren bitartez ezagutu daitezkeen familiaren gorabehera ekonomikoak.

Baina, nola egin daiteke lan protokolo-fondo batean? Pertsona jakin batzuen eskriturak aurkitzea beharrezkoa da. Protokoloa eskritura koadernatuko sekuentzia kronologikoa bada, nahi duguna aurkitzeko beharrezkoa izango da protokolo osoak berrikustea.

Bilaketa luze eta, batzuetan, antzua eragoziko dizkigun estrategia urri dago. Eskribautza batzuek, gutxi izan arren, eskrituren indizeak dituzte eta hori izango da lehenengo kontsulta. Lehen esan bezala, Gipuzkoako Agiritegi Nagusian Tolosako partidu judizialeko protokoloak gordetzen dira, bertan eskritura-egilesleen indize bat dago eskribautza eta garai desberdineko protokoloen lagin baten arabera eginga, baina ez dago erabilitako lagina eta ondorioz oso erabilera mugatua izango du.

Komenigarriena, ezkontza-kontratuen berreskurapenari ekitea izango da, normalean (ez beti) ezkontza-datatik egun batzuetako diferentziaz eta ezkontza-ospakizuna burutzen den hiribilduko eskribauren baten aurrean egilesten direlako. Beste iturriren batetik egilespendatako erreferentziarik badugu (adibidez, heriotz-agiria) testamentuen bilaketarekin jarraituko dugu.

Oro har, protokolo-fondoan lan egiten badugu, kontuan hartu beharko dugu beti serie osoaren berrikuspina alde batera uztea ia ezinezkoa dela. Oso lan geldoa da baina emaitzak oso interesgarriak dira beti. Komenigarria da aldez aurretik eskritura motak ezagutzea protokolo-fondoan murgiltzean aurkituko ditugun agiri motak aurretik ezagunak gerta dakizkigun: kopurua eskerga bada ere, erraz identifika daitezke agiri motak behin eta berriro errepikatzen direlako.

3.3 FONDO JUDIZIALAK

3.3.1 Iturri judizialak

Parroki-erregistroek genealogiaren egitura eta oinarria ematen badigute, eta protokolo-fondoek famili eta pertsonak bere garaian kokatzeko osagarriak biltzea ahalbidetzen badigute, prozesu judizialak familiaren historiako fragmentu txikiak dira. Une eta egoera jakin bateko irudiak dira, ia fotografikoak, bizitzaz beteta daude.

Auzi baten orrialdeetan zehar, egunetik-egunera, hilabetetik-hilabetera, eta, maiz, urte batzuetan zehar, familia bateko kide, ahaide, auzotar eta lagunak igarotzen dira eta goreneko informazio puska biziak uzten dituzte, ohiartzun handikoak, beren alegatu zein galdeketetan burututako azalpenetan, eta beren erantzunen xehetasunean.

Arraroa da auzia arazo pertsonal bat izatea, gehienetan, familiak, izan dezakeen zentzu zabalenean edo nuklearrean, parte hartzen dueneko arazoak dira. Ia beti, senar-emazte eta seme-alabek, eta maiz, anai-arreba, alboro eta zenbait belaunaldik ere parte hartzen dute. Auziak *negozio* familiarra dira, eta horregatik asko interesatzen zaizkigu iturri gisa.

Baina iturri judiziala, antzaz kontrakoa izan badaiteke ere, oso iturri hau-takorra da (eta izan ere, hala adierazi izan da etengabe). (Herri-Barrutiko) bigarren instantzian soilik prozesu zibileko 33.000 espediente inguru baditugu ere, gizarte-espektro zabala ordezkatuko dute, baina gizarte-estamentu ertain-altukoa bakarrik. Itxuraz arriskutsua gerta daitekeen baieztapen honek azalpenik behar du. Ezin dira, burutu nahi den edozein motatako ikerketan eragin negatiboak izango dituzten topikoetan oinarrituz, funtsean aztertu gabeko Gipuzkoako historia judizialeko lau mende aurkeztu.

Horrenbestez, gogoratu beharrekoa da lehenik prozesu judizialen tipologia orokorrean denboraldi luze batean zehar, hau da, XV. mendearen amaieratik XIX. mendearen hasieraraino, finkoa mantendu zela. XIX. mendearen lehenengo herenean areagotu ziren Monarkiaren sistema judizialaren aldaketa jarraiak, gaur egun oraindik indarrean dagoen egitura judizialaren oinarri diren Partidu Judizialen sorrera xedatzen duen 1834ko Errege Dekretuarekin eta Bake Epaitegien sorrera xedatzen duen 1855eko Errege Dekretuarekin burutuko dira. Bestalde *eskumen kontentziosoko* errekurtsua, bere instantzia desberdinetan, oso desberdina dela ere ezin da ahaztu. Lehen instantziako epaile den alkatearen irudia oso hedatuta egon arren,

apelazioak hautakorragoak dira. Agiritegi-fondoaren arabera, batera edo bestera ihardun beharko dugu.

Gipuzkoako Antzinako Erregimeneko Sistema Judizialak ez du Europa-ko beste lurraldetan bezalako egitura zatikatua agertzen. Ez da eskumen berezirik (ez jaurreri ez eta monasteriokorik ere) eta eliz-eskumen eta eskumen zibilek bakarrik dihardute, Lurralde guztirako uniformeak izanik.

Prozesu zibilak lehenengo instantziako epaile den alkatearen aurrean burutzen dira, eta bere jarraipena apelaziotan egituratzen da: bigarren instantzia Probintzia-Auzitegia da, Gipuzkoako Herri-Barrutiko Auzitegia deritzona, Erdi Aroaren amaieratik funtzionatzen duena; Herri-barrutitik, hirugarren instantzian, Errege Katolikoaren erregetzalditik behin-betirako Valladoliden (Tribunal de la Real Chancillería) kokatzen den Gaztelako Koroako Iparraldeko Lurralde-Auzitegia (Tribunal Territorial del Norte de la Corona de Castilla) apelatzen da; eta laugarren eta azken instantzian, Gaztelako Kontseiluko auzitegia (Tribunal del Consejo de Castilla) igarotzen da, Monarkiaren Gobernuoko organo gorena, nora orokorrean, «munta handiko» prozesuak bakarrik iristen diren edo interes eskergak jokoan daudenean. Bere Eskuduntzen artean, **Sala de mil y quinientas** deritzonak Maiorazko eta Jaurreriko prozesuak burutzen ditu, eta mende hauetan zehar Gipuzkoako maiorazkoen zenbait auzi iristen dira: Debako Irarrazabal, Lazkaoko Etxea, Azkoitiako Herrasti, Tolosa-Eibarko Isasi-Idiaquez, etab.

Esan bezala, prozesuak instantziaz-instantzia *iragazten dira*. Apelatzen dutenak, hori egiteko baliabideak dituztenak dira edo aurreko epaia kontraerabakitzeko oso ziur daudenak. Zenbait auzi, eskumen pribatiboa izateagatik aurrekoak saihestuz edo demanda tartejartzen duenaren nahia hori delako, lehenengo instantzian ere instantzia nagusietako batean tratatzen dira: adibidez, bitxia izanik ere burutu nahi dugun ikerketa motarako oso garrantzitsua den kasu batean kaparetasun-espedito batzuk lehenengo instantzian Errege Chancilleria edo Goi-Auzitegian liskartzen dira, hemen bakarrik eskuratu baitira Monarkiako Erresuma guztietarako berme osoak. Halaber, **gorteko kasuak** deritzenak, Goi-Auzitegia edo Gaztelako Kontseiluaren aurrean entzuten dira. Era berean, demandak, udaleko lehenengo instantzia saihestuz, Herri-Barrutiko Auzitegiaren aurrean aurkez daitezke, hau egitea oinordetza-prozesuetan ohizkoa izanik.

Kausa judizialen aberastasun eta aniztasuna prozesu bati ekin eta jarraitzeak dakarren kostuarekin lotuta daude zuzen-zuzenean. XVI eta XVII. mendeetan zehar prozesuak gero eta garestiagoak ziren eta justiziara gero

eta gutxiago jotzen zen, gizarte kontrol handiagoa eta gatazka gutxiago zegoen garaitan. Faktore guzti hauek iturri judizialen aberastasun edo aniztasunarengain eragina izango dute eta ikerlan bati ekiterakoan kontuan hartu beharrekoak dira.

Ez dugu beren bizimoduak zuzenean ezagutzea ahalbidetuko diguten familia guztien prozesu judizialik izango, ez eta gutxiagorik ere. Behintzat ez instantzia guztietan. Halere, ez da harritzekoa batzuek besteen auzietan lekuko gisa parte hartzea.

3.3.2 Gipuzkoako fondo judizialak

Tradizioz, fondo judizialak ez dira ondo zaindu eta udal askotan suntsitu diren lehenengo gauzak izan dira oker ulertutako antolakuntza-zoroalditan, batez ere XIX. mendean. XIX. mendearen erdialderaino, Gipuzkoako udal gehienek, guztiak ez baziren, beren prozesu judizialen Seriea gordetzen zuten, aurrean igarotzen zireneko eskribauak kronologikoki antolatuak, kasu askotan (Azkoitian, adibidez) eskribauen beraien protokoloetara gaineratuta.

Adierazi dudan bezala, eskribauak ziren prozesua idazteko ardura zutenak. Antzinako Erregimenean zehar, funtzio bikoitza izaten zuten, fede emailea eta prozesala: notari izateaz gain, auto edo auziaren prozeduraren fedea ematen zutenak ziren, alkatearen edo kasu bakoitzean ziharduen agintaritzaren aginduz. Udalek hiribilduko eskribauetara jotzen zuten eta hauek zeregin honetan txandakatzen ziren. Auzitegi bereziek beraien eskribauak zituzten: Herri-Barrutikoak lau, XVI. mendetik eta Goi-Auzitegiak eta Gaztelako Kontseiluak hamabi.

Hasi zenetik, udal agintaritzaren aurrean liskartutako prozesuak 5 motakoak izan zitezkeen eta epaitu eta, ondorioz, amaituak izan odoren, eskribauak honela sailkatzen zituzten:

1. **zibilak:** herentzia eta ondasunen gozamenarekin, tutoretza, zaindaritza, merkataritza eta ekonomi arazoengatiko kausak, adierazpen desberdineko administrazio arazoekin zerikusirik duten kasuen espedienteak.

2. **exekutiboak:** ordaindu gabeko zorrengatiko ondasunen exekuzioa, zentsu itxuraz baliatuz (kapital eta errenta baten salerosketa itxurazko mailegu kamuflatuak) horren «*korridoak*» (=urteko errenta) ordaintzen ez direlarik. Ondasunak exekutatu eta enkantean saltzen dira.

3. lehiaketak: edo hartzekodunen lehiaketa unibertsalak. Hartzekodun batek edo batzuek familia bati auzia jartzen zioten eta haiek ondasunak (maiorazkoa ez bazen) enkantean jarri eta saltzen zituzten, eta horien zenbatekoa orden kronologiko zehatz batez metatutako zorrak ordaintzeko erabiltzen zen, hartzekodun antzinakoenak lehenengo eta gainerakoek elkarren segidan kobratzen zutelarik, «graduazio-epaiak» (=hartzekodun bakoitzari zenbaki-gradu bat dagokio) deritzenen arabera.

4. kriminalak: irainei buruzko kasuen nahiz prostituzioa edo indarkeria sexuala, familia eta pertsonen ohoreari buruzko gatazka, lapurreta, borroka, anonimo, eta abarrekin zerikusia duten kasuen espedienteak.

5. kaparetasunak: tradizionalki, eskribauak bereizi egin dituzte, nahiz eta, argi eta garbi, prozesu zibil komunak izan. Izaera genealogikoko espedienteek osatzen dituzte eta beren garrantzia kontuan hartuz bereziki aztertuko ditugu.

Prozesu hauetan guztietan izaera genealogikoko informazio mamitsua izango dugu. Hau nabaria da herentzia eta oinordetza-prozesu zibiletan, maiorazkoen oinordetza edo bateraezintasun-prozesuetan, ondasunen banaketa-prozesuetan etab. Baina prozesu exekutiboetan ere nabarmena da, bertan finka edo exekutututako ondasunak deskribatzeko familiaren aurrekarietara jotzen delarik, exekututzen dena eta ez dena adierazteko eta zergatik (adibidez, maiorazkoen errentak exekutatu ezin daitezkeen neurrian eta horien errentak bai). Lehiaketetan gauza bera gertatzen da: pertsona eta erakunde oso desberdinek parte hartzen duten neurrian, Lehiaketa prozesuek datu mamitsu asko dituzte, nahiz eta beren bolumena dela eta, aztertzekeo zailak izan. Gipuzkoako historiako konplexuena eta luzeena, nik dakidanez, Ordiziako merkataria zen Juan de Arangurenen ondasunei dagokien berria da, XVII. mendearen bukaeratik XIX. mendearen hasierara luzatu zena, Gipuzkoako Agiritegi Nagusian (Tolosa) berrogei agiri-kutxa okupatzen dituelarik eta 60.000 bat folio!

Prozesu zibil eta kriminalen arteko bereizketa ez da gure pentsamoldeari dagokion behar bezain argia, eta bata eta bestearen fondoetan gaizki kokatutako auziak daude. Ez da harrizkoa, finka jakin batzuen arteko mugei buruzko auzia kriminala balitz bezala liskartzea. Gerta daiteke autoak bere aurretik igarotzen direneko eskribauak espediente zati bat edo guztia protokoloan koadernatzea. Halere, badago prozesu zibiletan zein urteko protoko-

loan koadernatuta aurki daitekeen ikerkuntza genealogikorako oso garrantzitsua den agiri mota bat: Inbentarioak eta oinordeen arteko Ondasun-Banaketa. Interesatuak izendatutako abokatuak idazten dituzte eta eskribauaren aurretik igarotzen dira. Gizarte-estamentu batzuetan familiaren ekonomi statusa eta gizarte egituraren erabateko erradiografia osatzen dute eta ehundaka folio har ditzakete.

Udal eskumenetik, azaldu dugun bezala, Herri-Barrutiko Auzitegira apelatzen da, eta hemendik Errege Goi-Auzitegira (22). Apelazioak aurreko instantziaren kopia osoa edo partziala darama inpliziturik, prozesuaren autoei gehitzen zaielarik. Baina prozesu baten demanda udal instantzian edo herri-barrutian planteatu daitekeen neurrian, Valladolidera batak nahiz besteak apelatu ahal izango du. Prozesu eta frogantza motak berak dira bi kasuetan. Goi-Auzitegiko epaia, «ikusketak eta berrikusketak»ko fase desberdinetan zehar igarotzen dena, prozesua irabazten duenak **Errege Exekutoria** bat eskatu eta eskuratzean amaitzen da. Horren bidez Erregeak epaia betetzea espreski agintzen du, baina honek, aldi berean, beste auzi batzuk sor ditzake, demanda berriko deskonplimenduak, etab. Alderdi eskatzaileari luzatutako Errege Exekutoria XV. mendetik aurrera pergamuz koadernatutako liburu bat da. Auziaren konplexutasunaren arabera, batzuetan lodiagoa eta bestetan meheagoa da eta adierazitako informazioa ere kasuan-kasukoa da. Errege Goi-Auzitegiko Agiritegian zenbait Exekutoria dago gordeta (kopietan), bertan 1465etik aurrerako zenbait Gipuzkoako auzi daudelarik.

3.3.3 Prozesu judizialen egitura eta ahalmeneko informazioa.

Antzinako Erregimenean eta prozesuetan islatzen den moduaren arabera, prozedura nahiko sinplea da. Behintzat, espedienteek erakusten duten egiturari dagokionez.

Prozesu edo autoa auzia amaituta/epaituta dagoenean koadernatu eta foliatutako pieza bat da (edo zenbait pieza, lodieraren arabera). Honako hauek parte hartzen dute:

1. alderdi edo auzilariak, beren abokatu edo prokuradoreek botere berezi edo orokorrez ordezkatuak, prozesua mugitzen dutenak.

(22) Prozesuen funtzionamendu prozesal, egitura eta izaera, auzilari-motak, etab. R. KAGAN-en ondoko liburu zoragarrian ikus daitezke, «*Pleitos y pleiteantes en Castilla 1500-1700*», Gaztela-Leongo Junta, 1991.

2. eginbide eta fase desberdinak burutu ahala prozesu-multzoaren idazketaren arduradun den eskribaua. Bera izango da prozesuaren egile materiala eta horren haria.

3. prozesuaren faseen konplimendu eta perfektioaz arduratzen den agintaritza judiziala, epaiaren egilea, alderdiei jakinarazpena igorri prozesua eta autoak amaitzen direlarik.

Prozesuak honako agiri mota hauek ditu, normalean ordena kronologikoan josita:

a. **eginbideak** edo prozesuaren kurtsoa. Bi motakoak dira: prozesua aurrera daramaten alderdi edo auzilarien prokuradoreen eskariz idatzitakoak; eta agintaritza judizialaren aginduz idatzitakoak.

Auzia osatzen duten orrialdeen zati nagusia hartzen dute eta horren existentzia eta izaera ezagutu ondoren, gure ikerketarako interes gutxikoak dira.

b. **demanda, alegatu** eta alderdi bakoitzeko ordezkarien eskuko eta autoretzako agiriak. Beren interesa eta luzera desberdina da. Hasierako demanda auziaren izaera eta mamia definitzeko erabiltzen da eta garrantzitsuena da. XVIII. mendean zehar eta batez ere XIX.ean, Gipuzkoako abokatu eta jurista jakintsu batzuen lumetatik ateratako benetako monumentu historiko-juridikoak aurki daitezke (Oro-Miota, Gamón, Egañatarrak, etab.).

c. **galdera-atalak** edo lekukoen galdeketa eta azalpenak. Luzera irregularra dute galdera eta lekuko-kopuruaren arabera. XVI. mendean 120 galderarainoko galdeketak ohizkoak dira, bertan lekukoak eta galderak hautatuz, eta demandaren izaerak, oro har, lekuko-kopurua ezarriko du. Kasu askotan euskaratik itzultzen dira eta ia beti oso errepikakorak dira.

d. **agirizko frogak** argumentazioak defendatzeko ekartzen dira eta lekukoen azalpenekin prozesuaren atal frogatzailea osatzen dute. Alderdi bakoitzak bere eskubidea defendatzeko bidezkoztat jotzen dituen agiriak aurkezten ditu. Badago 1803ko prozesu batean familiaren agiritegitik ateratako XV. mendeko jatorrizko agiriak aurkez ditzakenik; badago ere protokolo notarialetatik ehundaka folio kopiatzen dituenik; badago finen planoak aurkezten dituenik (Goi-Auzitegian olio margotutako koadroak ere, 1782-85ean auzi batean aurkeztu zen Urumeako ibarra erakusten duena), etab.

Edozein auzitan auziak berak planteatzen diren gaiak gain, auzitan dagoen arazoa eta ekarritako agirizko frogak informaziozko iturri garrantzitsuena dira. Adibidez, 1550ean fundatutako maiorazko baten oinordetza-prozesuan, izangai desberdinek 1780an auzitara emandakoa, ia beti Maiorazkoaren fundazioaren kopia bat aurkitzen dugu (edo jatorrizko agiri garaikidea ere), ezkontza-kontratuak eta oinorde batzuen testamentuak; agian, ere, jatorrizko korrespondentzia eta administrazio-kontu originalak, etab. Auzitan dagoen herentziaren zenbatekoa eta interes aurkatuak zenbat eta gehiago izan, agiriaren bolumena handiagoa izango da. Ikuspuntu honetatik famili-uziak egiazko informazio-meatzea dira. Zibilak, exekutiboak, lehiaketak edo kriminalak badira ere. Guztiek ekartzen dituzte froga gisa aurreko agiriak.

Agiri hauek ez ezik, gainerako agiri edo autoak jatorrizkoak dira. Auzia, apelazioz hurrengo eskumenera igarotzen denean guztiak osorik kopiatzen dira. Sistema honek, apelazioko auzitegien prozesuen informazioa bikoizteaz gain (bai eta autoen lodiera eta interesa ere) galdu izan direneko tribuna- len prozesuak gordetzea ahalbidetzen du: adibidez, Goi-Auzitegiaren fondotetan Gipuzkoako Herri-Barrutian gorde gabeko 1520tik aurrerako milatik gora auzi gordetzen dira.

Prozesuaren sekuentzia eta egitura ikusteko bereziki bilatu ez dudan kasu bat aztertuko dugu.

AUZIAREN DESKRIBAPENA:

Gipuzkoako Agiritegi Nagusia (Tolosa). Herri-Barrutiko Auzitegia. Mandiolako Eskribautza, auzi zibilak, Esp. zk.: 5.847. 204 folio.

1. AUZILARIAK:

- a) alderdi demandaria: María Josefa de Portu, alarguna, Zarauzko auzotarra, Zarauzko udalerrian kokaturiko Portuko Maiorazkoko VII. edukitzailea. Haren prokuradorea: José Vicente de Egaña. Abokatua: Luzuriaga Dra.
- b) alderdi demandatua: Francisco Antonio de Campos, Zarauzko auzotarra, M^a Magdalena de Porturen alarguna, Portuko Maiorazkoko VI. edukitzailea, eta Narciso Clavería, Zestoako auzotarra, aipatu M^a Magdalenaren osaba. Biak horren oinordeko, lehenengoa usufuktuduna eta bigarrena, jabetzan. Beren prokuradorea: Vicente de Azpiazu Iturbe. Abokatua: Julián de Egaña Liz.

2. KAUSA:

Ustez, Portuko Maiorazkoko jabego diren zilar landua eta beste ondasunen itzulerari buruzkoa, Maiorazkoa osatzen duten funts-ondasunak heredatzerakoan eskuratu ez zituelako.

3. IRAUPENA: 4

Hasierako demanda: 1830eko abuztuak 27

Epaia: 1832ko otsailak 17

4. TRAMITAZIOA.

Lehenengo fasea: Demanda eta demandatuaren defentsa (1830eko abuztutik 1831ko urtarrilera).

Honako atal hauek ditu:

- 1) Alderdi auzilariak beren prokuradoreei emandako ahalmen notarialak
 - M^a Josefa de Portuk José Vicente de Egañari 1830.08.24an
 - Francisco Antonio de Camposek Vicente de Aspiazu Iturberi: auzitarako ahalmen orokorra, aurrekoa, 1824.10.24koa
 - Narciso de Claveriak, Aspiazu berari 1830.09.9an
- 2) Demanda eta defentsako idazkiak
 - 1830eko abuztuaren 27an prozesuari ekiten diona Egañaren demanda da. Aspiazuren defentsak jarraitzen dio, irailaren 23koa.
- 3) Frogetarako konklusioen idazkinak, ahozko frogetarako artikulua-atalen aurkezpena barnebilduz.
 - Egañak urriaren 16an bere 2. idazkina aurkezten du frogetarako konklusioaz; eta abenduaren 23an ahozko frogetarako eskaera aurkezten du.
 - Aspiazuk azaroaren 20an Egañaren 2. idazkiaren aurka alegatzen du, eta abenduaren 23an bertan, galdeketaren edukina aurkezten du, urtarrilaren 10ean frogak formalki eskatuz.

Bigarren fasea: Ahozko eta agirizko frogak (1831ko urtarrila).

Bi alderdiek aurkezten dituzte:

1. Egañak otsailaren 5ean ondokoak aurkezten ditu Herri-Barrutiaren aurrean:
 - a) urtarrilaren 17-18an burututako ahozko frogak (Zarauzko Udaletxean). Zarauzko 7 emakume auzotarrei deklarazioa hartzen zaie.
 - b) notari aurrean urtarrilaren 18 eta 20an konpultsatutako agirizko frogak:
 - a. Maiorazkoaren fundazioa (1622)
 - b. Ondasunen inbentarioa (1753)
 - c. Heredatutako ondasunen edukitza hartzea (1829)
 - d. M^a Magdalena de Porturen Testamentua (1827)
2. Aspiazuk otsailaren 7an aurkeztuak:
 - a) Zarautzen urtarrilaren 18 eta 19an burututako ahozko frogak. Demandariari eta Zarauzko auzotar diren 5 gizona hartzen zaie deklarazioa, urtarrilaren 22an presbitero diren beste bi lekukoei zabalduz.
 - b) agirizko frogak; urtarrilaren 17 eta 20an konpultsatuak:
 - a. Portu eta Lazcanoren arteko ezkontza-kontratua (jatorrizkoa, 1729koa), bere kautotasunari buruzko eskribauen aitortzenaz, 1813an protokolo notarialak erre baitziren (agiria Donostiatik dator).
 - b. Portu eta Camposen arteko ezkontza-kontratua (1729)
 - c. Sakramentu-agiriak

Frogen fasearen aurretik Korregidoreak horiei ekiteko manamendua ematen du, fase hura amaitzeko, bere argitalpena aginduz, beste manamendua luzatzen duelarik (otsailak 9).

Konpultsa zein ahozko frogetarako Korregidorearen manamendua behar da, bai eta aurkako alderdiaren deia ere.

Hirugarren fasea. Azken alegazioak eta Epaiak (1831ko Ekainetik 1832ko Martxora)

Froga fasea amaiturik, eta alderdi bakoitzak bere eskubidea defendatuz aurkeztutako agirien arabera, alegazioak aurkezteko bigarren epealdi bat dago, hasierako demandarekiko aldaketak gerta daitezkeelarik, hura zabalduz edo bere edukina nabarmenki aldatuz. Hala gertatzen da gure kasuan. 5 hilabete irauten duen (ekainetik azarora) Fase Berezi batez mintza gaitezke, ondoko atal hauek dituelarik:

- a) Egañak alegazioak eta agirizko froga berriak aurkezten ditu, ekainak 14 eta irailak 5eko idazkinen bitartez. Konpultsak, uztailaren 6an, abuztuaren 31n, eta Irailaren lehen eskatzen dira.
- b) Azpiazuk, Egañarenak aurkatuz, bi idazki aurkezten ditu, uztailaren 2lean eta urriaren 10ean.

Fase berezi hau Korregidorearen Azpiazuren aldeko manamenduekin amaitzen da, Egañaren uziak ukatuz eta jatorrizko uzi eta demandarekin aurrera jarraitzeko aginduz. Lehenengo fasean bezala, alderdi bakoitzak bi idazki aurkezten ditu. Bi lehenengoak alegazioak dira eta 2 azkenak Epairako konklusioak (1831ko Azaroa 1832ko urtarrila).

Auzia otsailaren 17an erabakitako Epaiarekin amaitu zen, bi alderdiei horren berri eman zitzaielarik.

Korregidorearen Epaiak beti apela zitezkeen Valladolideko Goi-Auzitegia zen instanzia nagusiaren aurrean. Egañak hori egin zuen otsailaren 2lean. Halere, Egañak bere apelazio-eskubideari espreski uko egin zion martxoaren 2an, demandak prozedurak sortuko zuen gastuak merezi ez zuelako edo Epaiak aldatzeko aukerarik ikusi ez zuelako.

Horrenbestez, gatazka amaitutzat eman zen eta prozesuaren espedientea agiritegian gorde zen.

3.3.4 Kaparetasun-espedienteak

Auzi-zibileko beste mota bat izanik, nahiz bere egitura eta prozedura nahiz tratatzen den negozioaren izaera dela eta, kaparetasun-espedienteak, halere, auzi-mota berezitzat hartu izan dira betidanik. Gainera, argi dago gure azterlanaren helbururako oso garrantzitsuak direla.

Kaparetasun-espedienteko deitura orokorraren azpian, prozesu-tipologia anitza gordetzen da: kaparetasun-tipoa, sakonean aztertuko dugun genealogia eta odol-nobleziako frogantza; «egoera zibil» edo *nortasuneko* frogantzak, pertsona baten nortasunaren euskarri gisa gauzatutakoak; frogantza genealogiko soilak, beren *kaparetasuna* behar bezala frogatu gabe zuten auzotar guztiengatik Probintzia edo hiribilduen aginduz batzuetan liskartzen zirenak.

Kaparetasuna, lehenik, beste jatorri bateko auzotarrari hiribildu batean auzotartzea ahalbidetzen zion espedientea da. Gipuzkoan bertan, hiribildu batetik bestera, nahiz Lurraldetik ateratzeko liskartuak edo beste lurralde

edo Erresumetakoek liskartutakoak: adibidez, Hondarribia eta Donostian auzotartutako La Just gaskoi famatuak, Ramery merkatari flandriarrak, edo Artazcoz nafarrak edo Zurbano arabarrak. Lurraldetik eratorritako ohorea eta nobleziaren defentsarako arloaren baitan, XVI. mendetik aurrera, bestelako gizarte arrazoiak egon zitezkeelarik, ezinezkoa da ahaztea kaparetasun-espeditentea Gipuzkoako etorkinen mugimendua kontrolatzeko tresna zela alde batetik, eta bestik, aginduzko espeditenteaz kaparetasuna frogatu gabe eskura ez zitezkeen zinegotzi-karguak eskuratzeko hartutako sistema.

Argi dago kaparetasuna ere, estamentuzko egitura batean murgildurik zegoen gizarteak eusten zuela, Gipuzkoak hain zuzen ere, bertan *odol garbitasuna* balio garrantzitsua izanik. Horrenbestez, espeditenteen helburua bikoitza izango da beti: leinu jakin batekoa izatearen frogantza eta leinu jakin hori kapare zenaren frogantza, gipuzkoarren kasuan suposamendu hau unibertsala zelarik. XVI. mendetik aurrera garatutako teoriak zioenez, Gipuzkoako baserri eta leinu-etxe guztiak kapareak ziren eta ondorioz, bertako ondorengo guztiak ere, garaian asmatutako formularen pean: *limpio de toda mala raza de judio moro o penitenciado por el Santo Oficio de la inquisición u otra secta reprobada*. Kaparetasunak zerga jakin batzuen salbuespena, untzi-irteera militarrek (Gipuzkoako portuetan burutzen ziren marinel-taldeenak, ez) eta pribilegio erantsiak zekartzala kontuan hartuz, Gaztelako edozein gipuzkoarrek interes handia zuen bere kaparetasunari zegokion guztiaren berri izateko. Don Kixoteren orrialde ospetsuetan deskribatutako «Bizkaiko kaparea»ren figurak ez du azalpen gehiagorik behar.

Kaparetasun unibertsala, Behe Erdi-Aroan zehar Probintziak Erregeen eskutik lortutako pribilegio sorta baten bidez teorikoki landua da eta oro har, hiribilduen zerbitzu militarrengatiko sari gisa ezarria, agirien bitartez islatzen zen kaparetasun-espeditentean. Agiri mota bezala, espeditente hau XV. mendean bigarren zatian landu zen. Ordurarte, Gaztelan kapare eta herri-xehearen artean egiten zen bereizketa ez da hain garrantzitsua. Erregeak herri-xeheko edo judu konbertitu jatorriko zenbait zerbitzari kapare egiten zituen zegozkion Exekutorietan, baina berezko frogantza Juana eta Karlos Enperadorearen erregetzan ezarri zen unibertsalki, «Birkonkista» ahaztua zuen eta bere lurraldetik juduak ohildu zituen (1492) Gaztelakoa bezalako gizarte batean.

Goi-Auzitegiak (Valladolid eta Granada) ziren espeditente hauen laborategiak, eta bietatik Lurraldean ezarri beharreko ereduak Probintziara igortzen ziren. Probintziako Agiritegian oraindik gordetzen da 1536an Azkoitiako Juan Sánchez de Aramburuk Valladoliden irabazitako Kaparetasun-Exekutoria, Probintziak helburu horretarako eskatua.




8. ARGAZKIA

Azkoitiko Juan Sánchez de
 Aranbururen kaparetasun agiria. 1536
 (Gipuzkoako Agiritegi Orokorra,
 Batzarre Nagusi eta Diputazioak,
 Munita inbentarioa, 4. atala, 9
 Neg. 1. espedientea).

Gipuzkoako kaparetasun zaharrenak 1535-1550 inguruan liskartu ziren. Data hartatik aurrera ohizkoak ziren, eta XVII eta XVIII. mendeetan zehar guztiz normalak auzotartze edo helbide aldaketa ororako, auzilaria Gatzagako baserriar bat izan zein Eguia-tar edo Narros-eko Markesa (edo Naharro-sekoa). Mende hauetan zehar Batzar Nagusiek espediente hauei buruzko araudi desberdinak eman zituzten, bai eta gauzatu beharreko moduari buruz ere (23). Unerik garrantzitsuenak 1527ko Zestoako Batzar Nagusiek osatu zituzten, bertan Zestoako ordenantza zeritzona onetsi zelarik, geroago Karlos I. Enperadoreak egiaztatutakoa (kapare ez zen inork probintzian auzo-

(23) Erref. puntu honi eta Kaparetasunari buruz B. A. EGAÑA-ren gogoeta bitxiak, «*Instituciones Públicas de Gipuzkoa*» obran [cr. 1790], Gipuzkoako Foru Aldundia, 1992, 391-414 or., sistemaren aldi gorenean burututakoak.

tartzerik ez zuela zioena), espediente guztiei gaineratu beharko zitzaielarik osoak izan zitezten, bai eta 1773an Batzar Nagusiek Probintziako Kontsultari zen Francisco Antonio de Olabe Lz.ari emandako Komisia ere, prozesu hauek substantziatzeari buruz Lurraldeko Justizia guztiek uniformeki bete beharreko Metodo bat lan zezan. Olabek inprimatu zen *Instrukzio* bat landu zuen eta Batzar Nagusiek hiribildu guztiei **Kapare-Errolda** egin zezaten agindu zieten, bertan auzotar kapare eta udalerrikoak eta beren kaparetasun-onespen data inskribatzen zirelarik; arauzko egoeran ez zeudenei, espediente



9. ARGAZKIA
1773. Olaberen Instrukzioa.

Frogatzailea osatzera behartzen zitzairen. Urte hartan deitura bereko familiek zegozkien herrietan espediente eskerrik liskartu zituzten, eta bertako eta mugako herrietako deitura bereko auzotarrak bildu eta deituraren nolabaiteko genealogia eta uneko egoera idatzi zuten, loturak berreraikiz, eta demanda amankomuna aurkeztuz. Espediente hauek guztiak ez dira behar beste fidagarriak baina edozein ikerketarako oso garrantzitsuak dira. Data hartatik aurrera gipuzkoar guztiek kapare gisa erroldatuta egon behar zutela baieztatu daiteke. Azterketa estatistikoa ez dago egina, baina egia da herri guztiek *Matrikula-Liburu edo Kapare-Errolda*-ko liburu lodia bereganatu zutela, guztientzat Batzar Nagusietatik araututa zegoena, eta, bide batez esan dezagun, beti erabiltzen ez zutena. Horregatik, 1773an, Probintziak Olaberaren Instrukzioaz gain, hiribildu eta Alkatetza desberdinetan gordetako kapareta-espeditente guztien zerrenda inprimatzea agindu zuen ale lodia, 1774an indize bat eta eraskin bat gehitu zitzaizkiona (24).

Berez, kaparetasun-prozesuaren egitura oso sinplea da, eta ikusitako prozedura zibilen egitura bera du. Laburbilduz, ondoko atal hauek ditu:

1. kaparetzako auzilarien edo beren prokuradorearen demanda, bertan beren filiazioa, orokorrean hiru edo lau gradutan jasotzen delarik (aiton-amonak edo birraiton-amonetara)

2. Kontzejuko sindiko edo prokuradorearen aurkatasuna

3. galdera-atala; frogatu beharreko bi gaiei buruz: jatorrizko leinuaren genealogia eta kaparetasuna. Lehenengo lau deiturak frogatzen dira (lau aiton-amonenak)

4. auzilari edo beren arbasoen jatorriko lurretako lekuko azalpenak. Normalean, galderak egiaztatzen mugatzen dira eta oso kasu arraroak ez badira (frogatu nahi deneko pertsona ospetsuekiko ahaidetasuna) errepikapen hutsak dira.

5. agirizko frogak: bataiatu eta ezkontutako sakramentu-agiak, eta inoiz, agiri notarialen kopiak (testamentu eta ezkontza-kontratuak), auzian aurkezten dira, frogantza informazio hori edukitzea komenigarri den beste frogantza nobiliario mota konplexuago baten

(24) Bertan oinarrituko da aipatutako J. C. GUERRA esandako «*Ensayo de un Padrón...*» (1928) obra idazteko, horren oinarritzko atal bat (ez bakarra, noski) 1773ko obraren indizea delarik. Izan ere, Guerraren erreferentziak (kaparetasuneko herria eta urtea) liburu honen datuekin lotuta daude. Komenigarria da kontuan izatea espedienteak ez direla beti gorde eta batzuk ez direla 1773ko zerrendan jaso.


tzat oinarri gisa erabili nahi denean (Ordena Militarrak, Karlos III, etab. bere garaian ikusiko dugun bezala)

6. 1527ko Zestoako Ordenantzaren kopia (XVIII. mendeko erdialditik inprimatua eta Probintziako Idazkariak ziurtatua).

7. espedientea bere aurrean gauzatuko deneko Alkatea edo agintariaren epaia

8. onespena, interesatuek, Batzar Nagusiek edo Batzar bakoitzean izendatutako «Zaldun Izapidatzaileek» («Caballeros Diligencieros») hala eskatzen badute, Probintziako zigilua barneratuz.

9. beste agiriak: zenbait kasutan kaparetasunak familiaren genealogia idatzia barnebiltzen du, familiaren armariaren marrazkia, antzinako kapareen erroldak, etab.



10. ARGAZKIA

Arrilaga familiaren genealogia, 1789. urtean Tolosako kaparetasun espedientean aurkeztua (Gipuzkoako Agiritegi Orikorra, Kaparetasunak, 242 kaxa, 1. espedientea).

Kaparetasuna, halaber, Herri-Barrutiko Auzitegiaren aurrean liskar zitekeen (gipuzkoarrak ez direnen artean ohizkoa) edo Valladolideko Goi-Auzitegian (25). Egitura bera zen, baina Goi-Auzitegiak auzilariari Monarkiako Erresuma guztietan balio zuen Exekutoria ematen zion. Indietara, Gaztelara edo Aragoira joandako gipuzkoarrek beren jatorrizko herrietan liskartutako espedientea Goi-Auzitegian baliozkotzen zuten, funtsean ber-berak ziren froga zabalagoekin. Goi-Auzitegiko fiskalek jatorrizko nobleziako arazoak («kaparetasun unibertsal»eko printzipioa ez zen onartzen eta honen aurka Goi-Auzitegiak zenbait aldiz egin zuten) kasu batzuetan bakarrik planteatzen zituzten. Horien aurrean, zenbait erregetzaten, Probintziak protesta egiten zuten eta orokorki Errege Kontseiluak bere aldeko epaia ematen zuten, 1627an gertatu zen bezala, Goi-Auzitegiak auzi hauek Gipuzkoako Alkate Arrunten eskumenetik arrakastarik gabe kendu eta Valladoliden epai zitzaten nahi izan zuenean.


Gainera, Goi-Auzitegiko exekutoriak historian zehar ospea eman dieten ezaugarriaz bereizten dira: artearen historiako monumentu solemneak dira eta beren orrialde miniatuetan familia auzilariaren armariak margotzen dira, batzuetan beren erretratuak eta maiz garaiko Erregearena agertuz, bai eta lora, mitologia edo animalien motibo zoragarriko inisial eta mendelak ere.

Liskartu ondoren, aldeko epaia jasotzen zuen kaparetasunak (ia guztiak) «jurisprudentzia» ezartzen zuten. Antzinakoena gordez, familiek ez zuten honekin *ahaidetu* besterik egin behar, geroago espediente bat liskartu nahi bazuten. Hemendik dator espediente asko *kaparetasun eta ahaidego*-koak deitzea. Kasu horretan, bataio eta ezkontza-agiriak eta ahaidetzen deneko aurreko espedientearen kopia (*lekualdaketa*) aski ziren. Bide batez esan beharra dago modu honetan gero galdu diren antzinako espedienteak gorde zirela, XVII edo XVIII. mendeko kopiatan. Ahaidego-sekuentzia luzea izan daiteke eta ez da beharrezkoa ondorengo zuzena izatea, arbaso komun baten lehengusu edo ondorengoekiko ahaidetasuna frogatzea baino aski

(25) Valladolideko Goi-Auzitegiko Gipuzkoako kaparetasun-fondoei buruz obra desberdinak daude. Alde batetik, 4 aletako Inbentario Orokorra, Madril, 1955-56, BASANTA DE LA RIVA, A. egilearen «Nobleza Guipuzcoana», Valladolid, 1932, eta «Nobiliario Documental de Guipuzcoa», Valladolid, 1944, bi liburuak, espediente-hautapen bat argitaratzen dutelarik, eta V. de CADENAS y VICENT-ek zuzendutako espediente-katalogoak, Salazar y Castro Institutoak argitaratzen dituenak (CSIC); XIX. mendea osorik argitaratu da (12 ale) eta XVIII. mendea amaitzear dago. Espedienteen laburpenak argitaratzen dira, duten informazio genealogiko guztiarekin. Ez da harritzekoa deiturretan transkripzio akatsak aurkitzea, obraren lantalde-izaera dela eta.

zelako espedientea onesteko. Honela, zenbait espediente famili-genealogia-ko tratatutxo bihurtu ziren. XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasieran espediente urri ziren, eta estatuen nahasketak, noski, behargabeko bihurtu zituen.

Familia guztiek beren kaparetasun-espedientearen kopia gordetzen zuten eta ez da harritzekoa gaur egun ere berrehun edo hiruehun urtez halakorik gorde duen baserritarik aurkitzea.



11. ARGAZKIA
 1775eko ahaidetasun autoak, Jose eta Miguel Furundarenaren eta Jose de Furundarenaren 1773ko kaperatasunaren artekoak. Zumaya, 1775 (Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, Kaparetasunak, 269 kaxa, 8. espedientea).

Erabilera eta ustiapen zientifikorako aholkuak

Testuan zehar zenbait aholku eskaini bada ere, nagusienak jasoko ditugu.

Hasteko, komenigarria da iturri judiziala, kaparetasun-espeditenteak ezik, ikerketa genealogikoaren amaierarako uztea, eta, nolana ere, parroki-liburuen ondorenerako. Zein familia den arabera, estrategia on bat izango da protokoloekin batera edo lehenago iturri judizialera igarotzea. Informazioa antzekoa izan daiteke, baina bi iturri motak eskuratzeak luze joko du eta bietariko aukera bat hauta daiteke.

Kaparetasun-espeditenteak Udal Agiritegietan gordetzen dira eta Serie garrantzitsu bat Gipuzkoako Agiritegi Nagusian (Tolosa), batez ere Tolosako eskualdeko XVII eta XVIII. mendeko espeditenteak. Printzipioz, erraza da edozein deiturakoak aurkitzea eta J. C. GUE-*RRA*-k aipatu «*Ensayo de un Padrón...*» obran emandako indizea bilaketa-tresna egokiena da (1774-1860 bitartean liskartutako kaparetasunen zerrenda alfabetikoa jasotzen du). J. BILBAO-k bere aipatu Bibliografian jasotako zerrenda berriagoak argitaratu dira eta beti ere, egokia da Udal Agiritegiko inbentarioak konparatzea, 1773ko zerrenda, agian, geroztik, aberastu (edo pobretu) delako.

Kaparetasun-espeditentez gain, gainerako iturri judizialek dagokien Udal Agiritegieta-ko inbentarioetan kontsultatzea galdatzen dute (Agiritegi hauetan gehien erabiltzen den Serapio Múgica-ren sailkapen-taulan espeditente judizialak E Atalean daude). Aipatu serietan banatuta (1. zibilak; 2. exekutiboak; 3. lehiaketak; 4. kriminalak; 5. kaparetasunak) kronologikoki antolatuta daude (kaparetasunak ezik, alfabetikoki antolatuta izanik). Udal Agiritegietako serieak ez daude beti osorik eta XVI. mendearen bigarren erdialdean hasten dira. Bergara, Hondarribia, Urretxu, Zumaia, Arrasate, Errenteria, Azpeitia, Azkoitia edo Irun bezalako Udal Argiritegiek oso fondo garrantzitsuak gordetzen dituzte.

Bigarren instantzian, Herri-Barrutiko Agiritegian, espeditenteak lau eskribautzen arabera antolatuta daude, horien izenak Auzitegia abolitzerakoan bertako *buru* zirenen deitura zutelarik: Elorza, Lecuona, Mandiola eta Uria. Eskribautza bakoitzak hiru auzi mota zituen: 1. zibilak (guztira 21.428 espeditente), 2. exekutiboak (guztira 10.375 espeditente) eta 3. lehiaketak (guztira 1.370 espeditente), kronologikoki antolatuta.

Ustez osoa dirudien auzilari-espeditente bat bada, beste modu batera luze joko lukeen bilaketa arintzea ahalbidetzen duena. Fitxategiak espeditenteekiko erreferentzia egiten duten 75.000 fitxa inguru ditu, baina ezinezkoa da bere zehaztasun maila frogatzea (26).

Udal instantzian nahiz Probintzian, badirudi auzi zibiletan, denboraren poderioz, XVI, XVII eta XVIII. mendearen hasieran auzilariak gero eta elitistagoak zirela, baina XVIII eta XIX. mendearen hasieran, merkataritza-auziak oinordetzakoak baino gehiago gertatzen ziren garaian, auzien izaera medio, auzilariak oso jatorri desberdinekoak ziren. Berrehun urte hauetan gertatutako *aristokratizazioa*, hala deitzerik badugu, maiorazkoa bezalako erakundeen inguruan antolatutako gizarte baten isla da, hain zuzen ere, auzia, beti egongaitza den oreka juridiko eta ekonomikoan beste osagarri bat izanik.

(26) Fitxek antzinako paper-sorta edo auzien datak aipatzen dituzte, baina, ondoren, beharrezko izaten da (kasu batzuetan ezik) bidezko konparaketa eta bateraketak egitea espeditente bakoitza aurkitzeko. Fitxategian espeditente *guztiak* jasota ote dauden jakitea da arazo larriena.

Hau auzi zibiletan gertatzen bada ere, ez da gauza bera gertatzen exekutiboetan. Aipatu ditugun Agiritegi hauetan guztietan bere bolumenari dagokionez, bigarren seriea osatuz, ondaren exekuzioak estamentu guztietan zehar igarotzen dira eta, behe-mailako estamentuetako finketan gauzatzen, batez ere krisi garaitan. Auzi exekutiboetan gizarte egitura gainerako beste serietan baino hobeto islatzen da eta auzilarien tipologia askoz ere anitzagoa izango da.

Hartzekodunen lehiaketa unibertsalak ez dira hain ugari. Zenbait auzi exekutiboen batzura besterik ez dira eta batak eta besteak nahastuta agertzen dira maiz. Normalean saski-naski handia dira, bertan finken herentzia eta auzian dauden ondaren gaineko hartzekodunen eskubideak frogatzeko hainbat eta hainbat oinordetza-eskritura agertuz. Auzian, alderdi gisa, zenbait dozena eskubide-edukitzaile aurkezten ziren eta Korregidorearen «graduazioko» auziak hartzekodunek beren eskubideak kobratzen zituzten antolatzen zituen. Ondasunak, libreak baziren, enkantez saltzen ziren, eta lotetsita bazeuden, bahitu eta administrazioan jartzen ziren Auziak izendatutako pertsona baten ardurapean, honela zorrak arian-arian ordaintzen zirelarik. Honela, lehiaketak urtetan zehar luzatzen ziren eta gorabehera anitz jasanez, lehen aztertutako maiorazkoko mekanikaren poderioz lehiatutako maiorazko-finkak heredatu zituzten ahaide urrunek zor guztiak ordaindu eta auzia modu honetan amaitzen zen.

Hirugarren instantzia zen Goi-Auzitegiak gaur egun **IRARGI-k. Centro de Patrimonio Documental de Euskadi. (Euskal Ondare Dokumentalaren Zentroa)** (Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. Bergara) burututako (*BADATOR* izeneko) datu-basea du. Thesauro zein testu librearen bitartez, Goi-Auzitegiko Prozesu Zibilen Serieetan Euskadiri buruz gordetzen diren 25.000 auzi inguru (milioi bat pasa espediente) eta gainera 1525era bitarteko Exekutoriak kontsulta daitezke. Goi-Auzitegiak abantaila desberdinak eskaintzen ditu: osorik mekanizatutako (27) fondo bakarria izateaz gain, autoek aurreko instantzien kopiak jasotzen dituzte eta beren xehetasunak zabalagoak dira, Goi-Auzitegiko epaiak azkenekoak direlako. Gutxi dira Gaztelako Kontseilura igarotzen ziren prozesuak (aipatu *BADATOR* Datu-Basean kontsulta daitezkeenak) eta gehienak Valladoliden amaitzen ziren. Prozesuen atal nagusiak oinordetza izaera du eta bere interes genealogikoa nabaria da. Normalean, Goi-Auzitegiko frogak oso garrantzitsuak eta ale anitzekoak dira. Auzilariak izaera guztietako agiriak ekartzen zituzten, askotan XV. mendeko edo lehenagoko jatorrizko kopiak. Informazio potentzial handiko auziak dira. Baina beren eragozpenik handiena, prozesuaren kostua dela eta, Goi-Auzitegira jotzeko aukera estamentu jakin batzuek bakarrik izatea da. Itxuraz hasiera batean gertatzen ez zen hau, XVI, XVII eta XVIII. mendeetan areagotutako konstantea izan zen.

3.4 BESTELAKO AGIRITEGI-FONDOAK

Aurreko hiru kapituluetan linealki genealogia bat berreraikitze komendaren estrategia eta fase edo tratatu beharreko gai bakoitzari dagozkion agiritegi-fondo egokiak trazatu dira. Beste agiritegi-fondo edo berariazko Agiri-

(27) Proiektua 1996/7an amaituko da. Gaur artean, (1993ko azar.) Gipuzkoa eta Arabako 15.000 prozesu badira (Bizkaiak bere *Bizkaiako Sala* berezia du, nahiz eta zenbait prozesu Serie orokorretan egon) xehetasunez deskribatuta eta mekanizatuta, egindako lanaren %70a eta bi milioi folio inguru izanik, 1460tik 1840ra bitartera gutxi gorabehera.

Serieen multzo batean informazio osagarriak zein datu desberdinak aurki daitezke, gure ikerketa osatzea ahalbidetuko digutenak eta, zenbait kasutan, hura ordezkatzeko. Nahiz eta lehen mailako Agiritegi-Zerbitzu garrantzitsuetan gordetako agiriak izan, gure azterlan monografikoaren helbururako bigarren mailako interesa du eta horregatik, idazpuru honen pean bilduta aztertu da.

Argi dago Agiritegi *guztietan* genealogia bat osatzea ahalbidetuko duen *izaera biografikoko* informazio mamitsua aurki daitekeela. Guztia familia eta nahi dugun xehetasun mailaren arabera izango da. Udal errolda bateko erreferentzia edo Elizbarrutiko Agiritegiko konfirmanteen zerrendatik, XVII. mendeko Armada batean erabilitako marinel-taldeen dokumentuak eskaini dezaten datura, edo Ordena Militarren Zaldun baten noblezia-espedituetan pertsona batzuek aitortutako ahaidetasuna. Guztiak dira datu erabilgarriak, baina liburu honek gidatu nahi duen hastapen eta generikotasunaren bilakeran ez dira garrantzitsuenak edo premiazkoenak izango.

Ondoko informazioa hautakorra eta sintetikoa da. Honako agiritegi-fondo hauek ezagutzeko komerziari zaigu:

1. udal Agiritegiak
2. eliz Agiritegiak
3. Monarkiaren administrazioko agiritegiak
4. Agiritegi pribatu edo familiarak

Eta, aparteko izaeraz, interes genealogikoko agiri-fondo edo bilduma jakin batzuk.

3.4.1 Udal Agiritegiak

Aztertutako atal judizialaz gain, udal agiritegi guztiak, Behe Erdi Arotik beren fondoak biltzeari ekiten zioten mugape jakin bateko auzotarren ihardueraren isla bat dira. Kontzejuko udal akten eta kontuen Serieak, orokorrean, hiribildu baten bizitza ezagutzeko tresnarik onena dira. Espreski genealogikoak diren datuekin XIX eta XX. mendeko Errolda-liburuak izango ditugu eta 1841-1845eko Erregistro Zibilekoak. Zenbait kasutan (Leintz-Gatzaga (28)) interes genealogikoko Erroldak gordetzen dira.

(28) Harigarria badirudi ere, «*Memorial de los linajes de la Villa*» lana Parrokiko Agiritegian gordeta zegoen, eta J. YBARRA Y BERGE-k hari buruzko datuak argitaratu zituen «*Algunos linajes de Salinas de Léniz*» obran, Revista Hidalguía, 1956.

3.4.2 Eliz agiritegiak

Elizbarrutiko Agiritegian zentralizatutako parroko Agiritegiez gain, lurraldearen gaineko eliz-eskumenak informazio genealogikoa duten agiriak sortarazten ditu. Alde batetik, Artzain-Bisitetatik eratorritakoa, etxez etxe egindako konfirmatutakoen zerrenda; bestetik, Eliz-Auzitegiko espedienteak: Iruñeakoa eta Calahorreakoa (Bergarako Artzapez-barrutia, Gatzagatik Debara) nagusiki. Lehenengoaren katalogoa argitaratuta dago, beraz kontsultatzea oso erraza da (29).

Baionako Gotzain-Barrutiaren eskumena Donostiaraino iristen zen 1566an, handik aurrera Iruñearen menpe geratu zelarik, beraz teorikoki, beharrezko izango litzateke Atlantikoko Piriniotako Departamentu-Agiritegietan (Pabe) gordeta dagoen fondoan begiratzea, horrelako fondorik ba ote den jasota ez dagoen arren. Ez dago jasota ere, Iruñeako Elizbarrutiko Agiritegian Antzinako Erregimenean ziharduten Gipuzkoako Artzapez-Barruti Nagusiari, ez eta Donostiako Atzerriko Agiritegi Ofizialari buruzko agiri berezirik dagoenik.

Bi sexuetako Komentu eta Monasterioetako Agiritegiak iturri genealogiko osagarri garrantzitsuak dira. Sarrera-liburu eta lanbide-liburuak gordetzen dira, bai eta *bizitza-liburu* bitxiak ere, guztiak orokorrean oso interesgarriak diren datu pertsonal eta genealogikoekin. Halaber, bereziki nagusi eta aberatsak ziren familietako mojen doteekin batera ekarritako fondo pertsonalak gorde dira. Fundazio pribatukoak badira, familia fundatzailearen fondo bat gordetzen dute beti (30).

Parrokiko fondoan bilaketarako estrategia garatu dugu [erf. 3.1 kap.]. Fondo judizialen kasuan, prozesuaren egitura eta kontserbatutako fondoetatik atera daitekeen informazioa iturri judiziala aztertzen duen kapitulukoak [3.3. erf.] bera da. Iruñeako Agiritegiko katalogoak, aurki daitekeen prozesu-motaren berri ematen du. Kaperautza-prozesu eta beren patro-

(29) Erref. J. M. SALES TIRAPU-ren «*Archivo Diocesano de Pamplona. Procesos civiles*», Iruñea, 1988 etik aurrera. Gaur arte 10 bolumen argitaratu dira.

(30) Eta zer esanik ez, Vatikanoko Hiriko Aulki-Santuko Agiritegiak gehien batean antolatu gabeko informaziozko biltegi eskerga osatzen du eta gure helbururako duen informaziozko ahalmena eztabaidagarria izango da, eskuratzea oso zaila izango diren informazio guztiz zehatzen menpe. Kasu sinboliko bat jarriko dugu: Santuen Kausen Espedienteak, Errezilgo semea zen Santo Domingo Ibáñez de Erquicia-rena bezalakoa (h. 1633) informazio genealogiko, biografiko eta historiko mamitsua dutelarik. Erljio-Ordenen Agiritegi Nagusiak ere badira, (gehienak Erroman kokatuak, adibidez, Gipuzkoako historian hain garrantzitsuak izan ziren Jesuitenak), kasu askotan Gipuzkoatik eratorritako fondoak zentralizatu dituztenak, erlijioso bakoitzaren datuak barnebilduz.

nautza-eskualdaketetan informazio genealogikoa izango dugu, Patronatu laikoei buruzkoa, hilobiei buruzkoa etab. Monasterioetako agiritegiei dagokienez, Gipuzkoan nahiko ugari zirenak, ia ustiatu gabeko iturriak dira. Bigarren mailako iturri dira, kasu berezietan ezik, eta gizarte-estamentu guztiei buruzko datuak eskaintzen dituzte eta protokolo notarialen ezean hauek ordezka ditzaketen eskriturak gordetzen dituzte.

3.4.3 Monarkiako Agiritegiak.

Errege Kontseilua zein Behe Erdi Aroko Ofizialen egiturapean, Austrien eta lehen Borboien administrazio burokratizatu eta sinodo-anitzekoen menpe edo XVIII. mendearen lehen herenetik aurrera ezarritako Idazkaritzen egiturapean, Gaztelako Erresumako administrazioak Gipuzkoan zenbait funtzio egikaritu zituen, informazio genealogikoa aurki daitekeen hainbat agiri eta espediente sortaraziz.

Administrazio eskerga honen funtzioak eta Gipuzkoan izandako eragina deskribatzea ez da liburu honen gaia. Gure azterlanerako alderdi garrantzitsuenak eta bidezko informazioa aipatuko dugu.

a) hertsiki genealogikoak diren agiriak

Behe Erdi Arotik XIX. mendean zeharreko Estatu liberalaren finkapenera bitartean, Gaztelako gizartea, beste elementuez gain, ohorea eta noblezia bezalako kontzeptutan murgildutako gizarte gisa definitzen zen. Eta kontzeptu hauek, kaparetasun-espeditenteen kasuan ikusi bezala, espediente eta dokumentuetan islatzen diren zuzenbide-gizarte praktketan nabarmentzen dira. Monarkiak funtzionari edo gizon publikorik gaienak edo fidelenak saritzen zituen prerrogatiba edo noblezia-tituloekin, normalean famili-beharkizun jakin batzuk bete behar zituztelarik. Ia 1.330 euskaldunek [horien artean gutxienez %40a gipuzkoarrak] 1520tik 1900era bitartean lau Ordena Militarretatik habitu bat lortu zuten eta 90etik 100era euskaldunek Karlos III.aren Ordena 1771tik 1847ra bitartean. Guztiek zegozkien noblezia eta genealogia-frogekin. Era berean, zenbait ehundaka gipuzkoarrek Itsas-zain gisa edo Itsas-Kolegioan plaza bat lortu zuten, 1717 eta 1866 urteak bitartean, horretarako beren deituren noblezia frogatu behar zutelarik.

Noblezia-marka edo titulu bereizgarri baten esleipeneko mailarik baxuean edozein Ordenaren Habituaren Erregearen emakida zegoen (izaera pertsonalekoa eta ez herentziazkoa), 1492 eta 1501 bitartean Calatrava, Santiago eta Alcantarako Ordenen Maestrazgoak lortu zituenetik aurrera. Emakida, maiz Erregeak pertsona bati ematen zion oreka zen, berak edo bere

oinordeek erabil zezaten: honela, militar eta funtzionarioei emandako kontzesioak, beren seme edo suhietan gauzatzen zirenak, eta ezkontza-dote bat *biribiltzeko* erabiltzen zirenak.


Beste formalizazioez gain, emakida eskuratzen zuen pertsonak odol-garbitasuna eta nobleziako beharkizunak bete behar zituen, Zaldunaren sorterrira joaten ziren Ordenak izendatutako bi *zaldun informatzailek* egiaztatzen zituztelarik. Lau deiturak frogatu behar ziren eta horretarako, XVI. mendearen amaieratik, sakramentu-agiriak eta zegozkion agiri notarialen testigantzak (testamentu eta ezkontza kontratuak) barnebiltzen ziren, bai eta «*noblezia-erabilerak edo gozamen*» liburu, dorretxe, jauregi edo baserri soilen aintzatespena eta familiaren armariak ere (Alcantarako espedienteetan aginduzkoak zirenak).

Gipuzkoarrek Santiagoko Ordena lehenetsi zuten nabarmenki, ordenak oraindik izaera militarra zuenean, Enrike IV.aren Goarda eta Basailua zen Beltrán de la Cuevak zaldun izendatutako Elgetako Ochoa d'Onor de Olaegui ospetsutik aurrera eta 1580 eta 1650 bitartean, militar, funtzionari eta erregeen Idazkariak beren zerbitzuengatik sarituak, Ordena hartu zuten arte (31).

Zaldun informatzaileek Gipuzkoara etorri eta auzotar eta senideen testigantzak biltzen zituzten, dorre, jauregi, baserri eta hiriko etxebizitzak bisitatu eta deskribatuz, eta batzuetan, nahiz eta jatorrizko protokolo eta sakramentu-erregistroak eramateko asmoa izan, ez zuten arrakastarik izaten. Espedienteek izangaien guraso, aiton-amonak eta zortzi birraiton-amonen informazioa barnebiltzen zuten eta horregatik oso lodiak dira batzuetan. XVII, XVIII eta XIX. mendeetan zehar izangaien eta beren arbasoen ezkontza-kontratu eta testamentuak ekartzen zituzten, ezkonduko eta bataiatutako agiriak, Probintziako Idazkariaren ziurtagiriak eta «noblezia egintzaren gozamenaren» eskribauenak: sindiko, alkate, batzar-zaldun, Diputatu Nagusiaren izendapenak, etab.

Jakina denez, izangaiaren familiaren arabera, espediente guztiek ez dute bolumen ber-bera. Saritutako funtzionari asko jatorri xumekoak ziren eta zaldunen zortzi birraiton-amonak ez ziren normalean «*txit argi*». Espedienteetan ustekabe anitz aurki daiteke, eta ez da harrizkoa gizarte-egoeraren nahasketa eta ondorioz, genealogia harrigarria.

(31) Gomendatu nahi dut M. LAMBERT- GORGESen lana, «*Basques et navarrais dans l'Ordre de Santiago, 1580-1620*», CNRS, SEVPEN, Burdeos, 1985. Azken oharrean espedienteaz espediente aztertzen ditu 1580-1620 bitarteko zaldunak.



12. ARGAZKIA

Erroen zuhaitz genealogikoa, Fermín de Monzón y López de Retak Carlos III. aren Ordenan sartu aurretik handikitasuna frogatzeko egindakoa. 1783 (Agiritegi Historiko Nazionala (Madrid), Estatuaren sekzioa, Carlos III. aren Elkargoan sartzeko espedienteak, 166 zk.).

Karlos III.aren Ordenaren espedienteak ia berdinak dira; ez ordea, Itsas-Zaindarienak, bi deitura bakarrik frogatzen baitzituzten.

Zenbait gorabehera izan zela eta, Ordena Militarren espedienteak Agiritegi Historiko Nazionalean (Madril) gordetzen dira, Ordena Militarren Sekzioan [erf. GUTIERREZ DEL ARROYO, C. «*Guía de la sección de Ordenes Militares*», Madril, 1958]. 1901-1902an, bertako zuzendaria zen F. VIGNAU-k alfabetikoki ordenaturiko espedienteen indizeak argitaratu zituen. Deitura batzuk ez daude behar bezala transkribatuta, baina, oro har, bilaketa sinplea da. Espediente batzuk falta dira eta gordetakoen xehetasuna aldakorra da. Guztietatik, frogatu beharreko lau deituren jatorrizko lekuan idatzitako jatorrizko autoak gorde behar lirateke, agiri frogatzaileen autoen laburpenak, azkenean zaldunek idatzitako txostena eta, gainera, Eraskin gisa, izangaiaren eta bere guraso, aiton-amoneta eta birraiton-amonen bataio eta ezkontza-agiriak literalki transkribatzen direneko «*agiri fedemaile*» zenbakiak, eta horien guztien ezkontza-kontratu edo/eta testamentuak. Hori izango litzateke espediente-eredua, ohizkoa, XVII. mendetik aurrera. Baina, oso maiz, gehien interesatzen zaizkigun dokumentuak falta dira, «fedemaileak», esanguratsuak izanik, batez ere Getaria edo Donostian bezala jatorrizkoak erre ziren kasuetan, eta oso interesgarriak direnak bide batez lau familia ezagutzea ahalbidetzen dutelako. Esperientziak irakasten duenez, Ordenen Kontseiluak espe-

dientea onetsi ahala, agiriak izangaiei itzultzen zitzaizkien. Kronologikoki antolatutako espediente guztien laburpenak dituzten *matrikula liburuak* gordetzen dira. Alcantarako Ordenak, horiez gain, Armari-froga eskatzen zuen, ondorioz espedienteen gordetzen direlarik. Garai batean, Ordena Militarretako zaldunekin ezkontzeko zenbait froga egitea beharrezko zen eta Sekzio berean gordetako espedienteen laburpenak duela urte batzuk argitaratu ziren.

Salazar y Castro Institutuak (CSIC) XIX. mendeko Zaldunen espedienteen laburpenak argitaratu ditu eta XVIII. mendekoak ia osorik ere, V. de CADENAS-en zuzendaritzapean. Talde-lanak direnez gero, transkripzio akatsak dituzte eta kontuz erabili behar dira.

A.H.N.ko Estatu-Sekzioan gordetako Karlos III.aren Zaldunen sedearen espedienteen laburpenak, osorik argitaratu dira 12 aletan eta badute akatsik ere. Gauza bera gertatzen da Itsas Kolegioko eta Itsas-Zaindarien 6.124ko espedienteko seriearekin (Madrilgo Itsas-Armadaren Museoko Agiritegian gordeta). 7 ale ditu (1950-1956) eta informazioa erabatekoa, zaindua eta zehatza da, D. de LA VALGOMA eta FINESTRAT-eko BAROIAK burutua.

Gaztelako beste administrazioek ere noblezia edo odol-garbitasuneko froga galdatzen zuten eta dagozkien espedienteak gorde dira. Honela gertatzen da Inkisizioko Ofizio Santuarekin, bere karguetarako izangaiei frogak ezartzen dizkielarik, edo Unibertsitateko Kolegio Nagusiekin.

Inkisizioaren frogan serieak Agiritegi Historiko Nazionalean trenkatuta gorde dira, Inkisizio-Sekzioan. «La Suprema» [Auzitegi Zentrala] deritzonaren espedienteak interesatzen zaizkigu, nahiko osatuta daudelako (eta 1928an argitaratutako katalogo alfabetikoa dute) eta Gipuzkoarako Logroñoeko Auzitegiak egindakoak, gerra frantziarrear erre zirenez gero, gerokoak bakarrik gordetzen direlarik. Bestelako lurralde-auzitegiek ere badituzte gure azterlanerako interesgarriak diren frogak.


Kolegio bakoitzaren frogak bere Agiritegian gordetzen dira (adibidez, Rodríguez San Pedro profesoreak aztertutako Salamancako Kolegiokideenak) eta Agiritegi Historiko Nazionalean, Unibertsitate-Sekzioan (32).

b) bestelako agiriak

Interes genealogikoa duten agiri hauez gain. Monarkiaren Agiritegi-tako sekzio desberdinetan, gipuzkoarrei buruzko interes genealogikoko informazioa aurki daiteke. Izan ere, interes genealogiko orokorra duen informazioa da, biografiatik oso urruti ez dagoena.

Gaiarekiko sarrera orokorra den obra hau ez da lekurik onena Simancas, Historiko Nazional, Indiak edo Errege Jauregiko Agiritegietan, nagusienak aipatuz, aurki daitezkeen informazio-motak zehazteko. Batez ere Simancas-en gordetzen den Austrien garaiko dokumentazioak eta «Historico Nacio-

(32) Bergarako Handikien Errege Mintegira sartzeko ere proba batzuk egin behar izaten ziren. Horri buruzko erreferentziak ematen ditu J. MARTINEZek bere liburuan, «*Filiación de los seminaristas del Real Seminario de Nobles de Bergara*», Donostia, 1970.



13. ARGAZKIA

Erroen zuhaitz genealogikoa, Liborio eta Francisco de Paula de Otazuk 1816. urtean, Bergarako Handikien Errege Mintegian sartu aurretik, genealogia eta handikitasuna frogatzeko egindakoa. (Handikien Errege Mintegiko Agiritegia, Bergara, signatura, c/0-63-01).

Nal»ean dagoen Borboien garaikoak, Ogasun administrazioak (Ogasun Kontseilua edo Batzarrak), administrazio militarrekoak (Gerra eta Itsas Armadako Kontseiluak eta Idazkaritzak) edo serie orokorrek (adibidez, Simancas-en 1454etik 1689ra bitarteko dokumentazioa eta «Archivo Histórico Nacional»en 1690etik 1893ra bitarteko dokumentazioa jasotzen duen Zigiluaren Erregistro Orokor ezagunak) harritu egingo gaituzte.

Ikerkuntza orokorra egin nahi bada, alde batera utzi behar dira fondo hauek eta kasu zehatz eta konplexuagoetarako utzi, Agiritegi hauen egitura eta bertako fondoak konplexuak baitira. Errazagoa da klase pribilegiatuei buruzko informazioa gordetzea [adibidez, *Junta de Incorporaciones* deritzonaren informazioa, AHNan, G. GIL AYUSO-ren 1931ko katalogoarekin, Eliza eta monasterioetako Patronatuei buruzko izaera familiarreko agiriak ditu].

Indietako Agiritegiari buruz, J. GARMENDIA ARRUEBARRENA-ren «*Diccionario biográfico vasco*», 1992, onuraz kontsulta daiteke. Lana nolabaiteko zehaztasunez egitea komenigarria izango litzateke, baina Agiritegi Nagusietan diren Gipuzkoako fondoaren gida falta da, mito jakin batzuen suntsitu eta ustekabe garrantzitsuak eskainiko litzuzkeelako, Simancasen gertatzen den bezala.

3.4.4 famili-agiritegiak.

Antzinako Erregimen osoan zehar pertsonak eskubideak frogatu, jabetzei eutsi, ondasun gehiago ala gutxiago kudeatu eta aztertzen ari garen gairako garrantzitsua izanik, une jakin batean maiorazko bat edo ondasun jakin bartzuk erreklamatzeko erabilgarri izan zitezkeen ahaidetasun eta filiazioen memoria fidagarria izatea ahalbidetuko zieketeen hainbat agiri zituzten (33).

Ia familia guztiek gordetzen zituzten beren agiriak eta hauen bolumena estamentuaren arabera zen. Adibidez, alde batetik, kutxa batean kaparetasuna eta zenbait zentsu, salerosketa, obligazio eta ordainketa-gutunak gordetzen zituen baserritarra zegoen, eta bestetik, finka edo maiorazkoen agiri asko eta asko, nolabait antolatuta gordetzen zituen zenbait maiorazkoen jabea, azken hauek urriagoak.

XVIII. mendean zehar famili-agiritegiak behin eta berriro errepikatzen diren ereduaren arabera antolatzen ziren eta askotan familia bereko eskribau edo administrariak esperientzia notarialetik ateratakoak ziren. Agiriak, motaren arabera, paper-sortaz sailkatzen ziren eta oro har, maiorazkoka.

XIX. mendean desamortizazioa eta jabetza-sistemaren aldaketa juridiko orokorrek familiek Agiritegia eta paperak gordetzea ezbeharrezko bihurtu zuten, ondorioz agiritegi txikien zati handia desagertaraziz, eta familia askotan handienak bakarrik gordetzen ziren administrazio eta estamentuzko arrazoiak zirela eta, edo *prestigioagatik*.

Agiritegi hauetan protokolo edo beste iturri osagarriak ez dagoen garaie-tatik aurrera familikideen eskriturak gorde dira. Halere, gordetako agiri gehienak eskribauak egilearen eskariz idatzitako kopiak dira (eta fondo notarialean aurkituko ditugunak), baina sakabanatze geografikotik eratorritako arazoak saihestuz. Famili-agiritegiak, gainera, bertan bakarrik aurkituko ditugun beste agiri motak gordetzen ditu: korrespondentzia, kontuak, mota guztietako paperak. Ikerketa genealogiko ororako, osagarri ezinhobeak dira.

Ikerketa genealogiko baterako oso erabilgarria izan daiteke familiaren jatorriko baserrira zein den jakitea edo zein familiak eraiki duen hiribilduan Leinu-Etxe bat, hala izango balitz. Agian bere oinordekoek Agiritegia gorde dute eta bertan interesatzen zaizkigun antzinako eskriturak aurki genitzake.

(33) Gai hau aztertzeko, ikus nik neuk idatzitako F.B. AGUINAGALDE, «*Los Archivos familiares en el panorama de las fuentes documentales*», Boletín de estudios históricos de San Sebastián, 20 (1986), 11-63 orr. 1994an «*Archivos de familia. Materiales para un manual*», IRARGI, Ikerlanak bilduma, 7 zk.a, 1994, argitaratuko da.

Edozeinentzat argi legoke *famili-agiritegia* aurkitzea nahiko konplexua izango litzatekeela, horrelakorik balego. Deitura jakin batzuk Agiritegiren batean egongo dira, baina ez dago deitura hori bila gabiltzan familiari ote dagokion bermatzen duen ezer. Oinetxe amankomun bat egon daiteke baina horrek ez du esan nahi behar den lotura aurkituko dugunik. Jatorriz Legazpikoak diren Vicuña edo Plazaola familiek famili-agiritegia izango lukete (Vicuñatarrek zati bat oinordeko familia den Lardizabal familian, eta beste zati bat Plazaolatarrenarekin batera Donostiako Udal Agiritegian, San Millan-go Markesaren Fondoan) baina honek ez du bermatzen hauetariko edozein deiturari buruzko ikerlanak agiri hauetara eramango gaituenik; edo homonimia baten aurrean gaudenik.

Helburu honetarako erabil dezakegun famili-agiritegien zentsurik ez dago. Halere, Gipuzkoan edo Gipuzkoari buruz badira kontsulta daitezkeen zenbait famili-agiritegi: Ordiziako Zavala Etxekoa (Zavala familia); San Millaneko Markesena (Donostiako Udala), Peñaflorida Konteena eta Rocaverde Markesena (San Telmo Museoa, RSBAP) eta Loyolako Etxea (Loyolako Santutegia) (34). Hauetatik guztietatik, nolanahi ere, maiorkoen zerrenda interesatuko zaigu, horietariko bakoitzak Famili-Agiritegi desberdin batera igortzen gaituelako. Komenigarria izango litzateke hauen Zentsua egitea, bertan gaur egun maiorko bakoitzaren agiriak zein famili-agiritegitan aurkitzen diren adieraziko delarik.

3.4.5 eskuizkribu-bildumak

Agiri genealogikoek berezko historia dute, oso tradizio berezia, hain zuzen ere. Historian zehar eta, kasu bakoitzean, arrazoi desberdinengatik, **agiri genealogikoen bildumak** osatzeko gizarte eta kultur zirkunstantziak eman dira. Hala Frantzian Liburutegi Nazionalean (Paris) Cabinet d'Hozier fondoa edo Ingalaterran College of Arms-eko bildumak diren bezala, Gaztelako Koroan Historiako Errege Akademiako Salazar eta Castroren izaera orokorreko bildumak ditugu (bere fondoan artean E. de Garibay-ren eskuizkribu genealogikoak barnebiltzen dituelarik) eta Liburutegi Nazionalako Eskuizkribu-fondoa, biek berriki argitaratutako dagozkien katalogoekin. [vid. kap. 13].

Bi bildumetan aurrekari genealogiko anitz dago, nahiz eta lehenengoan goi-mailako estamentuekin loturikoak gehiago izan, beren izaera nobiliario nabarmena medio.

(34) Lehenengoari buruz, lana izenpetzen duenak Gida bat argitaratu zuen, AGUINAGALDE, F. B. de «*El Archivo de la Casa de Zavala, 1. Historia de la formación del Archivo y descripción de sus fondos*», Cuaderno de Historia-Geografía, 6 zk.a, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985; Peñafloridari buruz bada honako inbentario hau: AGUINAGALDE, F.B. eta VIVES, G. *El Archivo de los Condes de Peñaflorida*, Donostia, 1987; eta San Millan, Rocaverde nahiz Loyolakoek bertan kontsulta daitezkeen inbentarioak dituzte.